

1. DOKUMENTUA

LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN MEMORIA

1. dokumentua.

Lurraldearen Zatik Planaren memoria

I. ABIAPUNTUKO OINARRIAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen bitarteko eskala
 - 1.1. Eskualde-egiturak eta Lurraldearen Zatik Planak
 - 1.2. Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatik Plana
2. Aiarako Eskualde Egiturako erronkak eta aukerak
 - 2.1. Bilbo Metropolitarraren ingurunean
 - 2.2. Bilbao eta Vitoria-Gasteiz arteko konexio-espazioa
 - 2.3. Ahuleria demografiko eta ekonomikoa gainditzen. Bizitegi-kuantifikazioa
 - 2.4. Eskualdeko oinarri ekonomikoa berrasmutzen
 - 2.5. Goi Nerbioiko hazkunde eta berrikuntzaren ardatza
 - 2.6. Landa-lurraldeko garapen-aukera berriak
 - 2.7. Etorkizuneko proiektu kolektiborantz

II. AIARAKO ESQUALDE EGITURAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

3. Ingurune fisikoa eta ingurumen-kalitatea, lurralde-ereduaren oinarri
 - 3.1. Lurraldearen bokazioa
 - 3.2. Ingurumen-kalitaterako ekimenak
4. Nerbioiko Ardatz Teknopolitarra
 - 4.1. Nerbioiko Parke Lineala
 - 4.2. Ardatzaren azpiegitura-euskarria
 - 4.3. Llodio. Hiri-berrikuntzako eragiketa pilotua
 - 4.4. Amurrio. Eskualdeko zentraltasun berria
 - 4.5. Urduña-Orduñako hiri ekologikoa
5. Ekosistema Minipolitarrak
 - 5.1. Betiko Herriak
 - 5.2. Turismoa garatzeko programak
 - 5.3. Lurraldeko Sare Berdea
6. Azpiegiturak eta ekipamenduak
 - 6.1. Errepideak eta garraio publikoko sistemak
 - 6.2. Kanpoko konexioak
 - 6.3. Trenbidea, garraio publikorako aukera handia
 - 6.4. Telekomunikazioen garrantzi estrategikoa
 - 6.5. Lurraldearen ekipamendurako lehentasunak
7. Lurraldearen gobernua
 - 7.1. Lurraldea kudeatzeko formula berriak
 - 7.2. Dinamizazio-agentzia

I. ABIAPUNTUKO OINARRIAK

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDEAREN BITARTEKO ESKALA

1.1. ESKUALDE EGITURAK ETA LURRALDEAREN ZATIKO PLANAK

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea onartu zenean lurraldea antolatzeko tresna berriak agertu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek, Lurraldearen Arloko Planek eta Lurraldearen Zatik Planek aukera ematen dute, lehen aldiz, lurraldea antolatzeko sistema oso bat praktikan jartzeko. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak onartzen direnetik aurrera, badago lurralde-erreferentziako esparru bat arloko politikak bideratzeko eta udal-plangintzak koordinatzeko.

Lurralde-estrategia berri horretan, Lurraldearen Zatik Planak, eskualde-egiturak antolatzeko tresnak diren heinean, artezpideen eta tokiko mailaren artean kokatzen dira. Izan ere, Lurraldearen Zatik Planen jardun-eremua etorkizunari begira garrantzitsu eta erabakigarrienak diren lurralde-prozesuak gaur egun bere baitan hartzen dituen funtsezko eskala bati dagokio.

Begi bistakoa da udal-plangintza ez dela nahikoa lurraldea egituratzeko gai handiei aurre egiteko. Mugikortasun gero eta handiagoa, dinamika ekonomiko, sozial eta hiritar berriak, lurraldean ekipamendu handiei eta zerbitzu berritzaileei lotutako zentraltasun berriko elementuak agertzea, ingurumenaren eta natura-espazioen kudeaketa, eta abar, eguneroko bizitzan gero eta maizago ageri diren eta udalerrien administrazio-mugak aise gainditzen dituzten prozesuak dira. Era berean, lurraldearen antolamenduan badira beste zenbait kontu, autonomia-erkidegoaren osotasunaren eskala globaletik behar adinako koherentziaz aztertu eta landu ezin direnak, lurralde-esparru bakoitzak bere lurralde-berezitasunen eta bertako hiritarren itxaropen eta proiektuen ondorio den tratamendu berezia eskatzen baitu.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan identifikatutako lurraldeko eskualde-egiturei dagokien “bitarteko” lurralde-eskalak tamaina fisiko eta funtzional egokia du arazoak analizatzeko eta lurraldea antolatzeko programak ezartzeko.

Lurraldeko eskualde-egiturak eta bitarteko hiriak Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguru globalean lurralde-orekako estrategiak aplikatzeko “funtsezko atalak” dira. Lurraldearen Zatik Planek oso protagonismo berezia bereganatuko dute, inolako zalantzarik gabe. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek bilakaera handia izan dute ituntze-prozesu luzean zehar, gero eta “bigun eta eskematikoagoak” egin dira prozesu horren ondorioz, eta Lurraldearen Zatik Planetarantz bideratu dituzte lurraldeko eremuak etorkizunean konfiguratu edo taxutzeko zehaztapenetako asko.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiriak eta lurraldea planifikatzeko marko berrian “grabitate-zentroa” bitarteko eskalarantz, hots, lurraldeko eskualde-egituretarantz mugitu dela esan genezake.

Inolako zalantzarik gabe, gaur egungo egoeran, ezinbestekoa da Lurraldearen Zatik Planak koherentziaz eta eraginkortasunez idaztea eta plan horiek erakundeak eta talde sozialak etorkizunak eskatzen dizkigun espazio berriak eraikitzeke mobilizatzeko gai izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea planifikatzeko sistema berriak arrakasta izango badu.

1.2.

AIARAKO ESKUALDE EGITURAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

Lurraldearen Zatik Planetik Aiarako eskualde-egiturarako egiten den lurralde-antolamenduko proposamena lurralde-eredu berria bultzatuko duten elementuen gisara jarduteko arreta handiz hautatutako hainbat ekimenetan oinarritzen da batik bat.

Inolako zalantzarik gabe, Lurraldearen Zatik Planak osagai arautzailea izan behar du, legeak hala exijitzen baitu eta lurraldeak berak horren premia baitauka, lurralde-prozesuen gainean nolabaiteko kontrol publikoa izan dadin eta aukerak eta ongizatea oro har galarazten dituzten ekintzak eta joerak saihesten daitezzen.

Lurraldearen Zatik Plana, batik bat, gure gizarteak eskatzen dituen eta etorkizuneko erronkei erantzuteko behar-beharrezkoak izango ditugun transformazioak eta aldaketak eragingo dituzten ekintzak bultzatzeko plan bat egiteko asmoz sortu da. Eta ideia sendoa du abiapuntu: kontrol-jarrera hutsak lurralde-arazoak ez konpontzeaz gain, arazo horiek areagotu egingo ditu etorkizunean. Prebentzioa eta debekua nagusitzen diren ikusmoldeen aurrean, Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatik Planak gatazkak saihesteko funtsezko faktoreak berrikuntza eta lurraldearen transformazioa direla defendatzen du. Lurraldearen itxaropenak eta joerak aldatzea da kontua, lehentasun berriak ager daitezzen, jokabide positiboak nagusi izan daitezzen eta ekintza kaltegarrien baliagarritasuna murriztagoa izan dadin.

Aldaketa horiek ez dira beren kabuz gertatzen, ezta arauen eta arautze edo erregulazioen bitartez lortu ere. Oroz gain, ezinbestekoa da gure ingurunea aldatzea, egokiera eta harreman berriak, aukera handiagoak eta etorkizuneko perspektiba berriak ekarriko dituzten hiri eta lurralde errealitate berriak sortzea. Helburu hori erdietsi nahian adierazten dira lurralde-proposamenak, beren kokapen eta helburuetan berariazko aldaketak lortzera zuzendutako ekintzak planteatzen dituzten eragiketa eta jardun-ekimen zehatzen bitartez.

Eragiketa estrategiko horiek lurralde-eredu osoan eragiteko ahalmenarengatik, berritzeko potentzialarengatik eta eskualde-egituran identifikatutako espazio kritiko bakoitzari eman diezazkioketen lehia-abantailak balioztatzeke egokitasunagatik hautatu dira. Aldaketa eragingo duten ekintzak dira, beren koherentzia ziurtatzen duen ikuspegi orokorretik mamituak, eta eragiketa guztien baturak osatzen du, hain zuzen ere, eskualde-egiturarako lurralde-ereduaren proposamena.

Hipotesiak landu zirenean proposamen eta ekimen asko eta asko identifikatu ahal izan ziren eta horietako asko zehaztasun-maila handiarekin garatu dira lurraldean. Behar bezala kontrastatu ondoren, batzuk bere horretan utzi dira eta beste zenbait aldatu egin dira. Proposamen horiek mantendu egin nahi izan dira, jasotako erantzunen arabera beharrezkotzat jo ziren puntuetan egokituta, Lurraldearen Zatik Planak garatu behar dituen funtzioetako asko betetzeko aukera ematen dute-eta. Sarritan lurraldea ez da lege-xedapenekin antolatzen, proiektu eta jardun zehatzekin baizik. Horiek horrela, iradokizun asko mantendu egin dira, nahiz eta ez diren zehaztapentzat jo, horrela helburu garrantzitsuak lortzen baitira lurralde-eredurako funtsezkoak diren baina administrazioentzat halabeharrezko arau gisa proposatuz gero eragingarri izateko aukera galduko luketen erreferentzia, aukera eta kontzeptuetan.

2. AIARAKO ESKUALDE EGITURAKO ERRONKAK ETA AUKERAK

2.1. BILBO METROPOLITARRAREN INGURUNEAN

Nerbioiko itsasadarraren ingurunean gaur egun milioi bat pertsona ingurukoa izatera iritsi den biztanleria kontzentratu da mendearen hasieraz geroztik, penintsularen iparraldeko hiri-aglomeraziorik garrantzitsuen konfiguraturik: Bilbo Metropolitarrak. Prozesu horrek hiria hedatzeko gero eta eskari handiagoak sortu zituen industria-garapen garrantzitsua izan zuen sostengu, behar-beharrezkoa baitzen etengabe hazten ari zen biztanleria hartzeko, 50eko hamarkadatik aurrera batik bat.

Lurralde arloan, biztanleriaren eta jardueren hazkundeak metropolitartze-fenomeno garrantzitsua eragin du. Metropolitartze horretan Bilbaoko guneak bere protagonismoa mantentzen du hirugarren sektoreko eta administrazioko zentro gisa, eta industria eta bizitegi garapeneko prozesuak erdiko espaziotik abiatuta hedatzen dira, lehenik itsasadarraren bi aldeetara eta, geroago, komunikazio-azpiegitura handiekin bat datozen ardatz naturaletan zehar: Plentziarantzko itsasertza, Asua eta Ibaizabal ibaien haranak eta Kadagua eta Nerbioi ibaien haranak. Horren emaitza da hiri-espazio trinkoa, Euskal Autonomia Erkidego osoan pisu erabakigarria duena, ia biztanleriaren erdia eta enplegu guztien erdiak hartzen ditu-eta.


Alabaina, 70eko hamarkadako industria-krisialdiak agerian jarri zituen eredu horren mugak. Industria handiak berregituratzeak eta desagertzeak, bideraezinak baitziren mundu osoan agertzen hasia zen antolakuntza ekonomikoak izandako aldaketan aurrean, geldialdi ekonomiko eta demografikoa ekarri zuen funtsezko espazio horrentzat. Produkzio-oinarriaren gainbeherak desarrollismo edo garapenazetasuneko urte haietako ereduari loturiko beste hainbat arazo nabarmendu zituen. Hiri eta industria hazkundearen ingurumen-narriadura larriaren bizkar egin zen, poluzio-arazo garrantzitsuak ekarri eta paisaia eta natura-baliabideak suntsituz. Eremu eraikietan bertan behera utzitako industrien aztarnak okupatzen zituzten espazio zabalak agertu ziren. Eremu metropolitarrak oro har, eta biztanle gehienak kontzentratzen zituzten eremuak bereziki, oso narriatuta zeuden eta irudi negatiboa zuten hiri-espaziotzat hartzen ziren. Hiri-hazkundeko prozesuen arteko koherentziarik ezak eta behar adina azpiegitura ez izateak gatazka funtzional larriak ekarri zituzten eta bizitegi-eremuen portzentaje handi batek oso eraikuntza-dentsitate handiak zituen, hiri-kalitateko maila baxuak eta zuzkidura-gabezia garrantzitsuak.

Zirkunstantzia horiek guztiak oso oztopo garrantzitsuak ziren garrantzi horretako espazio metropolitarrak batek berezkoak izan beharko lituzkeen goi-mailako zerbitzu eta jardueretan bermatutako oinarri ekonomiko berria sortzeko. Hiri-berrikuntza, transformazio ekonomikorako giltzarri gisa, ekintza-gai bihurtu zen Bilbaoko espazio metropolitarraren.

Eskualde-egiturako burutzatik Bilbaora joateko denbora Errepidez (minututan)



Eskualde-egiturako burutzatik Bilbaora joateko denbora Trenez (minututan)



Bilbaoko eremu metropolitarraren bilakaerak elkarrekin erlazionatuta dauden askotariko lurralde-prozesuak dakartza berekin. Alde batetik, espazio metropolitarraren ezinbesteko berrikuntza, funtzio berriak bere gain hartu eta garapen-dinamika berriak bultzatu ahal izateko. Ekimen horrek, era berean, hazkunde-aukera berriak eskainiko dituzten, erdiko espazioen dentsifikazioa murriztuko duten eta espazio metropolitarrako lurralde-eskaintza dibertsifikatuko duten espazio berriak gehitzea eskatzen du. Bestalde, bazterreko espazioetako baldintzak

hobetzeko aukera emango duen eta biztanleriaren eta jardueren banaketa egokia ahalbidetuko duen lurralde-berrereka beharrezkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-egituretako beste ezein burutzatetik ezin da Bilbaora Llodiotik bezain azkar iritsi errepidez zein trenbidez. Autobiaz, gutxi gorabehera 15 minututan joan daiteke Bilbaoko erdigunera eta ia hori bezain hurbil daude eremu metropolitarrako beste puntu estrategiko batzuk, hala nola aireportua edo portua. Abandoko eta Llodioeko geltokien arteko trenbide-konexioa 28 minututan egiten da, bidaia-denbora metropolitarran inolako zalantzarik gabe, esate baterako Madril-Mostoles edo Bartzelona-El Prat aldiriko erlazioen antzekoa, iraupenari dagokionez bederen. Hori sekulako abantaila da, Aiarako eskualde-egituraren esku-eskuan jartzen baitu Bilbaoko eremu metropolitarraren potentzial eskerga, hots, goi-mailako zerbitzu pertsonalak eta produktiboak eta lehen mailako komunikazio-azpiegiturak, Aiarako eskualde-egiturari Bizkaiko hiriburuaren lan, etxebizitza eta jarduera-espazioen merkatuetan sartzeko aukera emanez.

Faktore horiek guztiak aurrekaririk gabeko aukera eskaintzen dute eskualde-egiturari Bilbaoren hurbiltasunaren abantailak aprobetxatzeko dituen hazkunde antolatua lortzeko. Garapen-etapa berri horrek gaur egun dauden guneak hartu behar ditu sostengu, horiek biziberrituz eta beren kokapen bikaina aprobetxatuz kanpokotasun larriak sortzen dituzten garapen barreiatuko prozesuei aurrea hartzeko.

Hedapen metropolitarrako prozesuen alderdi gatazkatsuenetako bat bazterreko eremuetan, hiria landarekin nahasten den inguruetan, urbanizazio barreiatuko prozesuak agertzean datza. Lurraldean sakabanatuta kokatzen diren bizitegi-espazioak, saltokiak eta produkzio-establezimenduak ugaritzean oinarritzen den hazkundeak ingurumenaren gaineko eraginak areagotzen ditu, azpiegitura eta ekipamenduz hornitzeko gastuak igoarazi eta lurraldearen gobernu osoa oztopatzen duen aldi berean.

Funtsezkoa da garapen berrietan nolabaiteko trinkotasuna ahalbidetuko duten eta azpiegituren, zerbitzuen, jardueren eta bizitegien arteko koherentzia egokia sustatuko duten hazkunde-ereduak diseinatzea. Espazio libre izaten jarraitu behar duten eremuak identifikatzea, dentsitatearen eta garraio-aukeren arteko erlazio koherentea bilatzea eta gaur egun dauden guneak hazkunde berriak bermatzeko oinarri gisa bultzatzea; horiexek dira oinarri-oinarizko helburu hori lortu ahal izateko funtsezko orientabideak.

2.2.

BILBAO ETA VITORIA-GASTEIZ ARTEKO KONEXIO ESPAZIOA

Aiarako eskualde-egiturak dituen lurralde-bereztasunen ondorioz, berebiziko garrantzia du Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-hiriaren garapenean.

Bere baitan Arabako eta Bizkaiko udalerrak hartzen dituen eskualde-egitura honek posizio estrategikoa du Euskal Autonomia Erkidegoaren mendebaldeko esparruan, bertan zehar gertatzen baitira hiru euskal hiriburuetakoren biren, hots, Bilbao eta Vitoria-Gasteizen arteko konexio-fluxurik garrantzitsuenetako batzuk, bi hiri horietako erdiko espazioen arteko erlazioa ez ezik, biek gero eta neurri handiagoan sortzen dituzten hedapen metropolitarrerako esparruen arteko erlazioak ere ahalbidetuz.

Autobidean eta A-624 errepidean zeharreko erlazioak ahalmen handiko bideen lotura bikoitza eskaintzen du eta bertan Amurriok benetako egituratze-errotularen eginkizuna betetzen du Bilbaotik Nerbioi ibaiaren haranean zehar hegoalderantz bideratzen diren garapenen eta Arabako haranetako Vitoria-Gasteizko eragin-esparruen artean.

Baina ez dira posizio geografikoa eta bide-ardatz handiak bokazio artikulatzaile horren garapenari bidea ematen dioten bakarrak. Izan ere, sinergia funtzional garrantzitsuak daude garrantzi handiko ekipamendu eta azpiegiturei loturik, Euskal Autonomia Erkidegoak esparru globaletan izango duen partaidetzan eginkizun protagonista betetzera deituak.

Aiarako eskualde-egitura distantzia berean dago Euskal Autonomia Erkidegoko nazioarteko harreman ekonomikoak artikulatzen dituzten funtsezko bi elementuetatik, hots, Bilbaoko portutik eta Forondako aireportu logistikotik. Beraz, portua eta aireportua trenbidea hirugarren intermodalitate-elementu nagusia izanik integratzea ahalbidetuko duten jarduera logistikoei loturiko goi-mailako funtzioak hartzeko bokazioa duen espazioa da.

Aukera bikain hori aprobetxatu ahal izateko erronka nagusia ildo horretan bideratutako jarduerak eta espazioak hartzeko gauza izango den proiektu bat sortzean eta proiektu hori gauzatzeko aukera emango duten azpiegiturak bultzatzean datza. Ildo horretan, funtsezkoa da A-624 errepideko Altube-Amurrio tartean zerbitzuaren kalitatea hobetzea, oinarriko estrategia baita lurralde honen Vitoria-Gasteizetik lotura finkatzeko eta Kadagua eta Nerbioi ibaietan zeharreko Bilbaoko hazkunde-esparruak Arabako Lautadakoeekin lotuko dituen garapen-ardatza bultzatzeko.

2.3.

AHULERIA DEMOGRAFIKO ETA EKONOMIKOA GAINDITZEN. BIZITEGI KUANTIFIKAZIOA

a) Bilbao Metropolitarraren berroreka eta hedapena

Bilbaoko eremu metropolitarraren hazkunde industrial eta demografiko handieneko etapan, hazkunde horren eraginak, zuzenekoak eta zeharkakoak, prozesu horretan zuzenean inplikaturik zeuden espazioetatik harantzago ere nabaritu ziren. Industria-garapeneko prozesuen jarraibide tipikoei jarraiki, hazkunde hori lehen sektoreko jardueretan espezializatutako ingurune baliabideak xurgatuz gauzatu zen neurri handi batean. Horren ondorioz, lurralde-desorekak areagotu egin ziren biztanleria eta jarduerak hazkunde metropolitarraren espazioan kontzentratzen ziren heinean. Bilbao Metropolitarraren mugakide diren espazioetan, hala nola Enkartzioetan, Arratian, Llodion eta Mungian, dimentsio handieneko guneek ez dute beren hurrenez hurren eragin-eremuetan eskualde-esparruko funtzioen buru izateko behar adinako tamaina funtzionala eta, horrenbestez, Bilbaorekin desabantaila-egoeran lehiatzen dira zerbitzu-portzentaje handi bat egiteko.

Prozesu horren adierazgarri, Bilbaoko jardueragune handiaren mugakide diren espazioak Euskal Autonomia Erkidego osoko maila baxuenak dituzten artean daude, garapen-adierazleei dagokienez: dentsitate demografikoa, per capita errenta edo hirugarren sektoreko jardueren garrantzia. Eremu horietako industriagune garrantzitsuenek, dagokien eskalan, antzeko arazoak jasan dituzte industria-krisialdiaren eragin ekonomikoari eta ingurumen eta hirigintza arloko narriadurari dagokienez, hazkunde azkarreko fasearen ondorioz, baina errealitate negatibo horiek transformatzeko askoz ere maniobra-tarte txikiagoa izan dute gune metropolitarrak baino.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek Bilbao Metropolitarraren deskongestionatzeko prozesuak faboratzen dituen estrategia baten bidez egiten diete aurre egoera horri, eskualde-egitura mugakideen hiri-garapena eta garapen funtzionala bultzatuz. Bilbao Metropolitarraren birmoldatzeko eta berritzeko asmo handiko proiektua pixkanaka hirugarren sektoreko goimailako jardueretan espezializatzearekin, aurreko etapan xurgatze-prozesua jasan duten eremuetan barreiatze eta hazkunde selektiboko ekintzekin koordinatzea da helburua. Esparru horietan, herrigune nagusiek berriz bereganatu behar dituzte eskualdeko lidertza-funtzioak, eta espazio metropolitarraren txertatuta egoteak eskaintzen dizkien aukerak aprobetxatu behar dituzte nork bere lurralde-berrikuntzako eta dibertsifikazio ekonomikoko prozesuei aurre egiteko.

Lurraldea berrorekatzeko ekimen hori ez da hiri-eremuetara eta nolabaiteko garrantzia duten herriguneetara mugatzen; aitzitik, landa eta natura espazioak ere bere baitan hartu behar ditu, inguru metropolitarraren esparru bereziak baitira, dentsitate handiko eremuetakoen osagarriak, eta espazio metropolitarraren eskaintza orokorrari ekarpen garrantzitsua egiten diotenak gainera.

Horiek horrela, berroreka eta barreiatze metropolitarraren estrategia ezinbesteko aukera gisa agertzen da berrikuntza-ekintzak, aldaketa funtzionalak eta orain arte lurraldean egon ez diren elementu berriak eskatzen dituen garapen-fase berriari lehiatzeko gai den espazio berri bat konfiguratu nahi bada. Gainera, behar-beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-hiria Euskadik metropoli globalen itunean parte hartzeko funtsezko erreferentzia gisa konfiguratzeko.

b) Proposamenari loturiko bizitegi-kuantifikazioa

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legean jasota dagoenez, Lurraldearen Zatik Planaren eginkizuna da babespeko etxebizitzak eraikitze lurzoru-azalera kuantifikatzea. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek, era berean, Lurraldearen Zatik Planak premiatzen dituzte udalerririk bakoitzerako bizitegi-lurzoruaren eskaintza kuantifikatzea eta bigarren bizitegirako eskaintzaren mugak ezartzera. Horrez gain, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek mekanismo bat aurreikusten dute tamaina txikiago udalerrietarako (ez dute zehazten tamaina hori zein den), zeinen arabera kuantifikazio-araua gehieneko muga izango bailitzateke, egungo etxebizitza-kopurua bikoiztea hartuz gehikuntza gisa.

Lurraldearen Zatiko Planaren filosofia ez litzateke izango plangintzek bete beharreko aurreikuspen zorrotzak ezartzea, gehienezko eta gutxieneko muga orokorrak finkatzea baizik. Udalerri bakoitzari dagokion bizitegi-lurzoruaren eskaintza kuantifikatzeko, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen 1.5. eranskinean ezarritako kalkulu-metodoa erabili da, Lurraldearen Zatiko Plan honen araudian aurkeztutako garapenaren arabera. Estatistika-datu eguneratuak kontuan hartuta, kalkulu-metodo horren aplikazioak honako emaitza hau du 8 eta 16 urterako.

Udalerrria	Etxebizitzak 1996an	Etxebizitza okupatuak 1996an	Gehienezko kuantifikazioa 8 urte	Gutxieneko kuantifikazioa 8 urte	Gehienezko kuantifikazioa 16 urte	Gutxieneko kuantifikazioa 16 urte
Amurrio	3.597	2.948	1.636	1.019	2.176	1.355
Arakaldo	43	31	20	13	27	17
Artziniega	804	450	648	438	862	583
Aiara	926	627	503	311	669	414
Llodio	6.908	6.175	2.291	1.545	3.047	2.055
Okondo	335	239	221	143	294	190
Urduña-Orduña	1.874	1.327	774	484	1.029	644
Orozko	1.073	637	567	365	754	485
GUZTIRA	15.560	12.434	6.660	4.318	8.858	5.743


2.4. ESKUALDEKO OINARRI EKONOMIKOA BERRASMATZEN

Datozen urteotan eskualde-egituraren produkzio-oinarria eratuko duten jarduera ekonomiko asko eta asko ez dira existitzen oraindik. Ekimen berriak hartzeko ideia eta espazio egokiak sustatu beharra dago, eskualdeko ekonomia bultzatzeko, dibertsifikatzeko eta sektore berritzaile batez hornitzeko, horrek ziurta baititzake, jarduera tradizionalekin batera, eskualde-egituraren oparotasuna, enpresen sorrera, kalitateko enpleguak eta merkatu globaletan epe ertain eta luzera hazteko itxaropenekin parte hartzeko ahalmena.



Eskualde-egiturako industria-garapen garrantzitsua produkzio-sektore gutxi batzuetako enpresa ertain eta handien kopuru txiki samar baten inguruan gertatu da batik bat. Industria-hazkundero eredu horrek poligonoan eta industria-instalazio handian du bere kokagune nagusia. Etorkizunean industria horrek eskualdeko ekonomian funtsezko pisua izaten jarraitu behar du. Behar-beharrezkoa da industria-jarduera konbentzionalak eta tokiko ekonomiaren zerbitzurako establezimendu txikiak hartzeko gai izango den lurzorua edukitzea, poligonoetako hirigintza eta ingurumen baldintzak hobetzea, poligono horiek zerbitzuz eta irisgarritasun-baldintza egokiz hornitzea, etab.

Espazio horiekin batera, ehun ekonomikoa dibertsifikatuko duten, malgutasun handiagoa emango dioten eta egitura-atzerapen garrantzitsua duten hirugarren sektoreko jardueretan enplegua haztea ahalbidetuko duten ekimen berriak sortzea. Helburu horiek lortu ahal izateko ezinbestekoa da funtzio berri horietarako esparru egokiak eta enpresa-ekimen berrien sorrera erraztuko duten sistemak edukitzea. Enpresa-parkeak eta bulego-erakinak, ikastetxeei loturiko enpresa-inkubadoreak, jarduera ekonomiko garrantzitsuenei lotutako berrikuntza teknologikoak hedatzeko zentroak, aholkularitza eta informazio zerbitzuak, profesionalentzako eta zerbitzu-enpresa txikientzako enpresa-herriak eta abar gaur egun eskualde-egituran ez dauden arren, etorkizunerako ezinbesteko elementuak dira eta Nerbioiko hiri-korridorean kokatu beharko lirateke.

Eskualde-egiturako egoera ekonomikoa



Jarduera ekonomikoaren sektoreak



Telexela da eskualde-egituraren hazkunde-potentzial handiena duten jardueren aukeretako bat. Herrigune nagusiek telekomunikazio-azpiegitura onak dituzten arren, ez da gauza bera gertatzen landagune txikietan, nahiz eta jarduera hori garatzeko erakargarrienak izan. Gune guztietatik zerbitzu telematiko aurreratueterako eta telekomunikazio-zerbitzueterako sarbidea bermatu beharra dago, eskualde-egiturako landa-espazioetan zabalitzen diren garapen-aukerak aprobetxatu nahi badira. Zerbitzu horiek erabilgarri izatea ezinbesteko baldintza da naturaren eta hirigintzaren ikuspegitik zeharo erakargarria den eta ongi komunikatuta eta gune

metropolitarr handi batetik oso hurbil dagoen esparru horretan hazkunde-potentzial ikaragarria duen berriazko eskaintza sortzeko eta, hartara, telelangileak, profesionalak eta zerbitzu-entresa txikiak (horietako batzuk guztiz berritzaileak) ezarri ahal izateko.

Eskualde-egituraren kokapenak aukera jakin batzuk eskaintzen ditu eta horiek aprobetxatu beharra dago. Hala, Bilbao metropolitarrreko kontsumo eta produkzio zentroarekiko hurbiltasunak eta Euskal Autonomia Erkidegoko zentro logistiko nagusiekiko konexioak eskaintzen dituzten azpiegiturak erabilgarri izateak aukera ezin hobea eskaintzen dute inguruetako kontsumo-zentro handiei lotutako merkataritzako banaketa-espazioen garapena bultzatzeko.

Ekonomia berritzeko beste aukera bat industria-espazio zaharkituak birmoldatzeari lotuta dago; egokiera aproposa da Llodioiko gunearen hiri-hobekuntzarako eta hedapen metropolitarrreko esparru berrietan kokatzea bilatzen duten hirugarren sektoreko jarduera berriak hartzeko espazio eta edukitzaileak eskaintzen ditu. Arestian adierazitako turismo-garapeneko aukerak ere egokiera berezia eskaintzen dute, zerbitzuetako, eraikuntzako eta nekazaritza eta abeltzaintzako entresa berriak agerrarazten dituzte-eta.

Garapen ekonomiko berritzailearen laugarren esparrua ingurumena kudeatzeko jardueri loturik ageri da, eta hazkunde-potentzial ikaragarria du datozen urteetarako. Lurraldeak behar dituen ingurumena hobetzeko ekintzek eta lurraldeak eskaintzen dituen aukerak berek, basogintzaren eta energiaren esparruetan esaterako, aukera bikaina planteatzen dute Erakunde Parte-hartzerako Bidean parte hartzen dutenek eskualde-egiturako berrikuntza ekonomikorako lehentasunezko zatitza jotzen dituzten artean dagoen arlo honetan entresa-jarduera berriak garatzeko.

Zuzkidurak sendotzea eta lurraldean hirugarren sektoreko funtzio berriak agertzea, bestalde, produkzio-egitura zuzenean zein jarduera berriak kokatzeko ezinbesteko eginkizunaren bitartez berritzeko funtsezko beste estrategietako bat da.

Bilbaoren hurbiltasunak abantaila ugari badakar ere, nolabaiteko zuzkidura-defizita eragin du eskualde-egituraren, hiriburuak egiten duen zerbitzu-eskaintza beti izango baita eskualde-egiturako hirigune nagusietatik egin daitekeena baino askoz ere handiagoa, kantitateari zein kalitateari dagokionez. Etorkizunari begira, Nerbioiko ardatzeko hirietako erakargarritasun hiritarra handitzeak eta hirugarren sektorearen garapenak behar-beharrezkoa dute zuzkidura-eskaintza areagotzea. Eskualde-egituraren lurralde-integrazioa, eskari-atalaseak areagotuz eta guzuzen arteko osagarritasun-estrategiak ahalbidetuz, ezinbesteko prozesua da eskualdeko ekipamenduen eskaintza eta zerbitzu-maila areagotu ahal izateko.

Lehentasun garrantzitsuenak osasun eta laguntzako ekipamenduetan, merkataritzakoetan eta aisialdi eta kulturari dagokionetan agertzen dira. Merkataritza eta kultur eta atseden jardueren eskaintza oinarrizko alderdietako bat da hiri-eskaintzaren kalitatea baloratzeko. Eskaintza hori bultzatzeak helburu nagusietako bat izan behar du Nerbioiko ardatzeko hiriak birkualifikatzeko ekimenetan. Gero eta garrantzi handiagoa izango duten zerbitzuak dira, gizarte aberats eta konplexuago baten eskariei baitagozkie eta neurri handi batean zehaztuko baitute lurraldeak zer-nolako ahalmena duen biztanleria-sektore dinamikoak eta nolabaiteko heziketa eta errenta maila dutenak finkatzeko eta erakartzeko.

2.5. GOI NERBIOIKO HAZKUNDE ETA BERRIKUNTZAREN ARDATZA


Bilbao jasaten ari dena bezalako metropolitartze-prozesu berriek esparru periferikoetan eragina izaten duten aldaketa funtzional eta egiturazkoak eragiten dituzte erdiko espazioan. Espazio metropolitarraren dimentsioa handitzen duten indar zentrifugoak agertzen dira eta bizitegi, produkzio eta aisiako erabilera berriak kokatzen dituzte bazterreko dentsitate txikiagoko espazioetan.

Lurralde-ikuspegitik eta ekonomiaren eta ingurumenaren iraunkortasunari dagokionetik prozesu horiek ahalik eta modu eraginkorrenean garatzeko gakoa ahalmen handiko garraio publikoko sistemek zeharkatzen dituzten ardatz handiei lotzean datza.

Nerbioiko ardatzak gaur egun eskualde-egiturako biztanleriaren %90 hartzen du bere baitan eta posizio estrategikoa du Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan. Bertan kokatzen dira hiru hirigune nagusiak, trenbide eta errepedeko linea bikoitz batek lotuta, gune horiek elkarrekin konektatuz eta eskualde-egituraren eta Bilbao eta Vitoria-Gasteizen arteko oinarritzko konexioa osatuz. Azpiegitura eta hiri euskarri hori da eskualde-egituraren espazio metropolitarraren hazkunde adimentsu eta iraunkorreko prozesu handigura sustatzeko giltzarria.

Alde negatiboan, alabaina, Llodio eta Amurrioko hiri-garapenen kalitate urria, produkzio-jardueren dibertsifikaziorik eta dinamismorik eza eta etxebizitza-defizit sakona ageri dira, nahiz eta ardatz horretan hiri-hazkunderako aukerarik ere baden.

Hazkundearen aurreko jarrera



Hazkunde berriek mugikortasun-eskariak automobilaren ordezkari moduekin asetzeko premia hartu behar dute hiri-diseinuko irizpide gisa. Tokiko esparruan oinez edo bizikletaz mugitzeko aukera ibilgailu pribatuaren eragina murrizteko funtsezko faktorea da. Hiri arteko joan-etorrietarako trenez eta autobusez osatutako garraio kolektiboko maiztasun, erosotasun eta kalitate handiko zerbitzu erakargarriak izateak horretarako beharrezkoak diren azpiegiturak eskatzen ditu, baina are garrantzitsuagoa da zerbitzu horiek gauzatzeko aukera emango duten hiri-ereduak izatea. Eraikuntza-dentsitate handienak garraio publikoaren euskarri diren ardatz handien inguruan kontzentratzea, urbanizazio barreiatua saihestea eta biztanleria oso dentsitate txikiko gainazal handietan ez sakabanatzea, horiek dira errepede eta autobide berrien premia murrizteko, hiriko bizitzaren erakargarritasuna areagotzeko, energia eraginkortasun handiagoarekin erabiltzeko eta poluzioa murrizteko lurralde-aukerak.

Nerbioiko Ardatz Teknopolitarra eskualde-egituraren alderdi hiritarra eta ekonomikoa indartzeko eta espazio metropolitarran berronkatze-ekimen handi bat abian jartzeko eragiketa estrategikoa handia bezala planteatzen da. Espazio hori elementu lineal zeharo erakargarri gisa artikulatzea eta bere inguruan hiri-berrikuntzako ekintzak eta ekonomia eta bizitegi hazkunderakoak garatzea da, argi eta garbi, eskualde-egiturarako eta espazio metropolitarraren hazkunde-prozesu adimentsu eta berritzailea diseinatzeako aukera handietako bat.

2.6. LANDA LURRALDEKO GARAPEN AUKERA BERRIAK

Garapen-prozesuek lurraldearen ingurumen-kalitatean eragin negatiboa izan dute orain arte. Uren, airearen eta lurzoruen poluzioa, landare-estalkiaren galera eta urbanizazioak eta azpiegiturek lurrak okupatzea, arrisku naturalak areagotzea, paisaia aldaraztea eta narriatzea eta ekosistema eta habitat naturalak suntsitzea, oraindik ere antzeman daitezkeen industria-hazkunderako etaparen emaitzak dira.

Etorkizunari begira, ezinezkoa izango da ingurumen-narriadura, poluzioa eta natura-baliabideen ahitzea eta neurritz gainera ustiapena bezalako arazoak dituen espazio batean hazkundera iraunkorra eta kalitatekoa lortzea. Erabilerak kokatzeko erabakietan ingurumen-irizpideak eta naturarekiko bateragarritasunekoak erabiltzea, garapen-prozesuek ingurumen-intereseko espazioak ahalik eta gutxien okupatzea, naturan integratuko diren eta ziklo naturalak errepikatuko dituzten estrategiak eta azpiegiturak diseinatzea ezinbesteko baldintzak dira epe luzerako bokazioa duen edozein hazkundera-estrategiatarako.

Lurraldearen eta ingurumenaren aurreko jarrera



Espazio libreen eta urbanizazioak okupatutakoaren artean beharrezkoa den oreka mantentzea oinarri-oinarrizko helburua da hazkundera egokia eta iraunkorra lortu ahal izateko. Nekazaritzak lurraldearen zati handi baten izaera eta paisaia modelatu du. Datozen urteetan funtzio berriak bilatu beharko dira aurrerantzean lehen sektoreko jardueretan erabiliko ez diren espazioetarako. Beste zenbaitetan, natura-espazio jakin batzuk izatea da lurralde bati berezitasuna ematen diona, bere lehiakortasunerako behar duen faktore bereizgarriaz hornitzen baitu. Ongizate eta iraunkortasunari lotutako funtsezko kontuak, hala nola arrisku naturalen prebentzioa, bizi-kalitatea edo jarduera ekonomiko ugari garatzeko potentziala, natura-intereseko eremuak egoki kontserbatzearen eta urbanizaziorik gabeko espazioak kudeatzearen mende egon ohi dira. Espazio irekiak espazio metropolitarrak eratzen duten faktore dira gaur egun eta, horrenbestez, behar-beharrezkoa dute betetzen dituzten lurralde-funtzio garrantzitsuak garatzeko aukera emango dieten antolamendu egokia.

Ingurumen-kalitateari eta paisaia atsegineko espazio deskongestionatuak izateari esker, Aiarako eskualde-egiturak egokiera ezin hobea du hirugarren sektoreko eta industriako jarduera aurreratuak hartzeko. Jarduera horiek ezartzeko erabakietan gero eta garrantzi handiagoa du ingurumenaren kalitateak. Orobat, ordezko bizitegi-espazio bihurtzeko eta turismo-garapen nabaria lortzeko argudio garrantzitsuak izateko.

Eskualde-egiturak bere natura eta paisaia balioetan du lurralde-eskaintza erakargarria, berezia, bere ehun ekonomikoa dibertsifikatzeko eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko aukerak eskainiko dituen ahal izateko aktiborik garrantzitsuenetakoa. Gorbeia natura-parkeak eta Garobel mendiguneak eskualde-egitura osoko paisaia hartzen dute mende eta espazio hori natura-beretasun bereziko eremu gisa karakterizatzen duten erreferentziako zedarriak dira. Nerbioiko haranaren puntu narriatuenetan izan ezik, oso erakargarritasun handiko paisaia eta ingurumen baliabide ugari dituen lurralde horretako elementurik nabarmenenak dira.

Lurraldearen "turismo-argudioak" zalantzarik gabekoak dira, bai natura, paisaia eta ondare erakargarritasunagatik, bai aire zabaleko aisia-jardueren eskaintza zabala egiteko potentzialagatik. Gainera, hiri-turismoak Bilbaon izan duen hazkundera ikusgarriaren ondorioz,

aukera berri bat sortzen da inguruetan hiriburuko hotel-eskaintza osatuko duten eta bisitarien turismo-aukerak areagotuko dituzten turismo-zerbitzuak agertzeko.

Eskualde-egiturako arkitektura-ondare aberatsaren kontserbazioak eraikin batzuen turismo-erabilera har dezake sostengu neurri handi batean. Lurraldearen ezaugarriek ikaragarri ugaria izan daitekeen eskaintza egiteko aukera ematen dute: landa-turismoa, baserri-turismoa, jauregi eta dorreetako hotel txikiak, turismo-harreragune gisa moldatutako landaguneak eta naturarekin harremanetan gauzatutako aisia-jarduerak.


2.7. ETORKIZUNeko PROIEKTU KOLEKTIBORANTZ

Hazkunde metropolitarraren arazo eta helburuek gaitu egiten dute tokiko esparrua. Informazio-trukean, lankidetzan eta eredu komun baten definizioan oinarritutako udalaz gaitu ikuspegi batetik baino ezin izango dira garapen-estrategia jasagarriak eta iraunkorrak diseinatu. Parte hartzeko eskari handia dago eta eskualde-egiturarako etorkizuneko proiektu bat definitzeko premia sumatzen da.

Hazkunde adimentsuak ezin du izan beren ikuspegi partikularrak inposatzeko ahalmena duten erakundeek edo talde sozialek jardunbide jakin batzuk inposatzearen emaitza. Erakundeek lankidetzaren ekimenek hiritar-taldeek parte hartzeko sistemak aintzat hartu behar dituzte. Gizarte-kohesioa eta herritarrek beren komunitatearekin eta honek etorkizuna planteatzeko erarekin bat egitea epe luzerako garapen-prozesu bideragarriak lortzeko ezinbesteko baldintzak dira. Herritarren premiak aseko dituzten zerbitzu publikoak edukitzea, kalitateko enplegua sortuko duten jarduerak ekonomiko bideragarriak bermatzeko ahalmena izatea eta botere publikoen, enpresen eta hainbat motatako herritar-kolektiboaren arteko lankidetzaren sistema arinak sortzea, hazkunde iraunkorreko prozesu berriak bultzatzeko faktore erabakigarriak dira.

Parte hartzeko prozesuan lortutako erantzunak lurraldean bokazioak eta ekimenak antzemateko funtsezko erreferentzieta bat dira. Lurraldearen Zatik Planari buruzko iritziak eta iradokizunak eman dituzten kolektibo eta erakundeek ideia argiak, praktikoak eta eraginkorrak dituzte, badakite zein izan behar den beren lurraldearen etorkizuna eta nola antolatu behar diren erabilerak eta jarduerak eskualde-egituraren datuak urteetan lortu nahi den lurralde hori diseinatzeko.

Etxebizitza eskuratzea



Udalerrietako hirigintza-arazoak



II. AIARAKO ESKUALDE EGITURAKO LURRALDEAREN ZATI KO PLANA

3. INGURUNE FISIKOA ETA INGURUMEN KALITATEA, LURRALDE EREDUAREN OINARRI


3.1. LURRALDEAREN BOKAZIOA

Aiarako eskualde-egituran lurzoruaren erabilerak historikoki baldintzatu dituen erliebe menditsu eta aldapatsua da nagusi. Lurraren aldapa faktore erabakigarria izan da nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak garatzeko, baita garraio-azpiegiturak eta eraikuntza-erabilerak kokatzeko ere.

Baldintzatzaile horiek gaur egun arte iraun dute. Izan ere, lurraldeak gaur egun dituen ezaugarri naturalak, paisaia eta lurzoruaren erabileren antolaketa bere ezaugarri fisikoen emaitza dira neurri handi batean. Ingurune fisikoaren egitura definitzen duten unitate handiak bat datoz eskualde-egiturako lurralde-ereduan beteko duten funtzioari dagokionez bokazio definitua duten esparruekin.

Lurraldearen bokazioarekin bat etorritz jardunez gero, funtsezko helburuak lor daitezke hazkunde iraunkorra erdiesteko eta lurraldea industria-etapatik zerbitzuen eta teknologia berrien etapara bilakatzeko itzaropenak areagotzeko: garapen-aukeren aprobeixamendu eraginkorra, biodibertsitatearen eta natura-espazioen babesa, paisaia erakargarria mantentzea, arrisku naturalen prebentzioa eta natura-baliabideen narriadura saihestuko duen kudeaketa. Lurraldea bereizten duen eta jarduera berritzaileetarako gero eta lehia-abantaila handiagoa den ingurumen-kalitate handiko ingurunea bermatzea da helburua.

Lurraldearen eta ingurumenaren aurreko jarrera



Lurraldearen Zatik Planak beren berezitasun fisikoagatik edo etorkizuneko lurralde-ereduan beteko duten eginkizun estrategikoagatik babes berezia eman behar zaien lurzoru urbanizaezineko esparruak identifikatzen ditu, balioz hornitzen dituzten ezaugarri naturalak eta ingurumen-funtzioak mantendu ahal izateko. Zenbaitetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Espazio Babestuen Sarean eta natura-intereseko espazioen beste zerrenda batzuetan sartzeak kontserbazioa errazten duen esparru edo markoa sortzen du. Beste batzuetan, aldiz, batik bat toki-mailako garrantzia duten elementuak dira eta, horrenbestez, lurralde eta hirigintza antolamenduko tresnen bitartez babestu behar dira.

a. Natura-intereseko eremuak

Ekosistema bereziak eta gutxi aldatuak, lurraldeko biodibertsitatearen adierazgarri onena osatzen dutenak, hartzen dituztelako balio ekologiko eta ingurumen-balio bereziko lurrei dagozkie.

Aiarako eskualde-egituran ezaugarri horiek dituzten honako espazio hauek sartzen dira, hiru kategoria bereiziz legezko babes-estatusaren arabera:

Natura-espazio babestuak

Eskualde-egiturako natura-espazioak lurralde hau ingurumen-erakargarritasun handiko espazio gisa identifikatzen duten esparru bereziak dira, lurralde-eskaintza aberasten dutenak eta Euskal Autonomia Erkidegoko leku gehienetan dagoeneko desagertu diren edo nekez aurki daitezkeen balio handiko natura-elementuak biltzen dituztenak. Gorbeia Natura Parkea eta Itxinako Mendiguneko Biotopo Babestua dira gaur egun natura babesteko irudiak dituzten eskualde-

egiturako eremu bakarrak. Bi espazioek badute dagoeneko Natura Baliabideak Antolatzeke Plana, babestu behar diren espazioen eremu-banaketa ezarri eta bertan garatuko diren erabilerak arautzen dituen.

Natura 2000 sarea

Garobel mendigunea, eskualde-egiturako hego-mendebaldeko muturrean kokatua, Eusko Jaurlaritzaren 1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko eta 2003ko ekainaren 10eko erabakien arabera Natura 2000 sarea osatzeko aurrez hautatutako artean dagoen esparrua da. Bere labarren erliebe ikusgarriak eta espazio honek osatzen duen goi-plataforman giza kokagunerik ez izateak, animalia eta landare espezie interesgarrien presentziarekin batera, aise justifikatzen dute sare horretan sartzea eta hirigintzaren eta lurraldearen ikuspegitik babes-balio handia ematea.

Natura-intereseko beste zenbait enklabe

Bi esparru handi horiez gain, eskualde-egituran badira beste espazio txikiago batzuk, ekologiaren eta ingurumenaren ikuspegitik oso bereziak direnak eta, horrenbestez, babes berezia merezi dutenak. Multzo horretan honako espazio hauek sartzen dira:

- Delikako haitzartea eta ur-jauzia: eskualde-egiturako muturrik hegoaldekoenean, Nerbioi ibaia 200 m inguruko altuerako horma harritsu eta zorrotz batetik amiltzen da, ikuskizun zoragarria eskainiz urte-sasoi euritsuetan. Zedarri hori hegoaldetik Urduña-Orduñako plataforma Gibijo mendigunerako sarbidea ematen duen haizpitarte ikusgarri batekin ixten duen "V" erako haran baten erpinean kokatzen da. Bere ezaugarrietan inolako aldaketarik gabe babestu beharra dagoen zedarria da, Urduña-Orduñako eta inguruetako biztanleguneetatik bere pertzepzioa indartuz. Esparru horretan sartzen dira, halaber, Nerbioi ibaiaren ibilgua, Delikatik ibaian gora, ibai-bazterrak, ibilgu publikoaren mugaketa-lerroarekiko 100 metroko erretiroarekin, eta Gibijo mendigunearen inguruak osatzen dituzten labarrak, Nerbioi ibaiaren sorburuaren alde bietako 500 metroko kotatik.
- Landaredi mediterraneoko enklabeak, artadiak, Llodioko gunearen ipar-mendebaldean agertzen dira. Kantauri Itsasoko ertzean geratzen diren bakarretakoak dira, klima beroagoa zen iraganeko garaietako lekuko.

Esparru horietaz gain, EAeko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planean adierazitako balio naturalistiko handieneko hezeguneak (Llodioko eta Maroñoko urtegia, Goi Erbiko putzuak, Goi Nerbioiko urmaelak eta istilak Urduña-Orduñan eta Izaldeko landaredi urtarreko sistemak Okondon) eta "zuhaitz berezi" gisa katalogatuta dauden aleak, eta bereziki "Artziniegako artea" ere natura-intereseko espazioak dira.

Beren ezaugarriak direla-eta, natura-espazio horiek oso hauskorak dira beren gaineko gizakiaren presio desordenatua ekar dezaketen esku-hartzeen aurrean. Etorkizunari begira, eremu horietan atsedeen-erabilerak kontrolik gabe haztea izango litzateke arriskurik handiena, narriadura ekologikoa eta erakargarri bihurtzen dituzten ezaugarrien galera ekarriko bailituzke berekin.

Lurralde-eredua da espazio horien kudeaketa iraunkorrerako tresna nagusia. Eremu hauskorren gaineko presioa mugatzeko ordeko beste espazio irisgarriagoak eta ez hain urrakorrak identifikatu eta egokituko dira, eskualde-egiturak eskain dezakeen naturarekin harremanetan gozatzeko aisia-eskariaren zati handi bat har dezaten beren baitan.

Lurraldea kudeatzeko beste irizpidea espazio horietan bisitarien joan-etorriak arautzean eta zerbitzu-instalazioak ingurumen-baliorik handiena duten eremuei eragin gabe kokatzean datza. Ezinbestekoa da natura-espazioen barruan bisitarien mugimenduak antolatzea, erabiltzaile gehienek erabiliko dituzten ibilbideak egokituz eta seinalatutako bideetatik kanpo ibiltzea eragotziz. Sakabanatzea saihestu beharra dago, izugarri areagotzen baititu baliabideak narriatzeko arriskuak, suteak, habitaten aldaketa eta hondakinen isurketa. Helburu horiek erraztea eta espazio horien erakarpen-ahalmenak landa-ekonomiari eskaintzen dion egokiera aprobetxatzea da, hain zuzen ere, lurralde-ereduak proposatzen dituen lurralderako

sarreraguneen helburu nagusia. Gune horiek egokitzeak bisitarietzako eta horien jardueretzako zerbitzurako instalazioak eta eraikuntzak hartzeko eta sarrerak kontrolatzeko aukera eman behar du, eremu urrakorretan bereizi gabe sartzea edo lur urotako ibilgailuak kontrolik gabe mugitzea eragotziz, sarrera-fluxuak eta natura-interes handieneko eremuetan garatzen diren jarduera-motak erregulatzeko sistemak ezarriz.

b. Baso-intereseko eremuak

Lurraldearen Zatiko Planak baso-intereseko eremutzat jotzen ditu Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan halakotzat adierazitako esparruak, 1.000 metroko altitudetik gorako kotak dituzten mendi-eremu nagusietako gailur-eremu nagusiei eta hostozabalen eta koniferoen basoek okupatzen dituzten hegaletako espazioei dagozkienak.

Mendilerroetako eremu garaienak 600 eta 1.200 metro bitarteko altitudetan daude. Tontorren formako erpin zorrotzak dituzten gailurrei edo argi eta garbi mugatutako banaleroei dagozkie, eta eremu garaietan gailur harritsuak eta horma bertikalak dira nagusi. Lurraldearen urruneko ikus-horizontea mendean hartzen duten paisaia-zedarri arras garrantzitsuak dira, erreferentziako elementuak paisaiaren pertzepzioan. Ikus-eragin handi horren kontrapartida ikuspegi-potentzial handia da, eskualde-egituraren ikuspegi ikusgarriak eskaintzen dituzten begiratoki naturalak baitira. Puntu batzuetatik Bilbaoko eremu metropolitarraren zati handi baten eta itsasoaren panoramika ederra ikus daiteke. Landare-estalkia oso aldakorra da, hostozabalen basoak eta pinudiak dira nagusi, eremu garaietan edo aldapatsuenetan sastrakadiak eta goi-mendiko larreak eta gailurretan landaredi errupikola.

Eremu gehienetan sartzea erraza ez denez gero, maila handiko integritate naturala mantendu ahal izan dute. Tradizioz udako bazkaleku gisa erabili izan dira, kota baxueneko eremuak baso-ustiapenerako erabiliz. Faktore horiek guztiek erabilera tradizionalak eta aisia biguneko jarduerak mantentzeko bokazio nabarmena definitzen dute, atsedeen-eremuetan eta Sare Berdeko ibilbideetan integratutako paisaiatzat gozatzeko puntu gisa alegia. Altitudearen ondorioz potentzial eoliko handiko eremuak dira eta, horrenbestez, erabilera hori paisaian izan lezakeen eragina kontuan hartuz garatu behar da, aerosorgailuak ezartzeko kokaleku aproposen artean biztanle-dentsitate handieneko eremuetatik gutxien ikusten direnak hautatuz eta landaredi berezia duten harkaitzetan eragina izan dezaketen kokalekuetan ezartzea saihestuz.

Haran-hondoen eta gailur-eremuen arteko trantsizioan mendi-hegaletako espazioak agertzen dira, aldapa handikoak gehienetan, hurbileko ikus-horizontea osatuz. Topografiak betidanik mugatu du lur horiek nekazaritzarako edo eraikuntza-jardueretarako erabiltzeko aukera, eta abeltzaintza eta basogintza izan dira esparru horietako erabilera tradizionalak. Gaur egun belardiz eta pagadiak, gaztainadiak, hariztiak eta erkameztiak tartekatuta dituzten pinudiz osatutako mosaiko batek markatzen du paisaia oraindik ere. Multzoa aniztasun natural eta bisual handiko collage bat da, urtean zehar aldakuntza kromatiko garrantzitsua duena; horregatik dira, paisaiaren ikuspegitik begiratuta, lurralde osoko espazio erakargarri eta interesgarrienak. Zuhaitz-landaredia desagertzen denean espazio hauskorak dira higadura eta isurketa prozesuen aurrean, zuhaitz-estalkiaren dentsitatea bat-bateko uholdeei aurrea hartzeko faktore kritikoa baita.

Lehen sektoreko jardueren atzerakadak finka asko bertan behera uzteko gero eta arrisku handiagoa dakar, eta horrek pobretu egiten du oso balio handiko paisaia. Inguru horiek jasaten duten eragin nagusia linea elektrikoen ugaritasuna da eta arriskurik handiena, berriz, suteak, larreen aprobetxamendua murriztu izanaren eta baso-eremuak ez mantentzearen ondorioz. Etorkizunari begira, esparru horiek eraikuntzarik gabe edo ikus-eraginak sortzen dituzten bestelako elementurik gabe mantentzea izan behar da helburua, gaur egungo aniztasuna mantentzea eta abeltzaintzak bertan behera utzitako eremuak zuhaitziz okupatzea faboratuz. Horretarako, ezinbestekoa da jarduera ekonomiko tradizionalen jarraitutasuna erraztea, bideragarritasun-potentzial handieneko formulak sustatuz, hala nola bertako ardi eta behi arrazen abeltzaintza estentsiboa, baso-ustiapenen errentagarritasuna areagotzeko sistemak sortzea, lurra estaliko dela bermatzeko, eta esparru berezi jakin batzuetan aisia eta jolas jardueretarako espazioak egokitzea, eremu horietako ingurumen eta paisaia balioak mantendu ahal izateko.

c. Nekazaritza-intereseko eremuak

Haran-hondoko eremuak nekazaritza-erabilerarako ahalmen handieneko lurra dira. Gehienetan eremu lau horiek ez datoz bat ibaien bideekin, lurraldea banatzen duten mendilerroen artean nagusiki ipar-ekialdetik hego-ekialderako noranzkoa duten sakonune aki zabalekin baizik. Lurzoruen kalitatearen eta topografia lauaren ondorioz, laboreek, biztanleguneek, azpiegiturek eta bestelako eraikuntza-erabilerek lurraldea okupatu dute. Izan ere, horixe da etorkizunerako faktore kritikoa, zeren lurraren baldintza egokiek lurraldea okupatzeko era sakabanatuak eta desordenatuak sustatzen baitituzte, eremu zabalenetan batik bat, hala nola Aiarako haranean, Menagarai eta Amurrio artean, Orozko eta Llodio arteko korridorean eta Amurrioko eta Urduña-Orduñako inguruetan.

Espazio horiek korridore naturalak dira, eskualde-egituraren barne-komunikazioetarako eta kanpo-konexiorako ezinbestekoak. Hazkunde berriak kokatzeko lehentasunezko esparruak dira, baina oso garrantzitsua da hazkunde horiek gaur egungo guneei loturik gauzatzea, eskualde-egituran oso urriak diren ahalmen handiko lurren erabilera hipotekatzen duten urbanizazio barreiatuko prozesuak saihestuz, etorkizuneko garapenak hartuko dituen lurzoru-erreserba osatzen dute-eta.

Hiriguneeen hazkundeari lotutako eremuetatik kanpo, esparru hauetako helburua nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerek okupatutako espazio libre izaten jarraitzea izango da, eta dagoeneko erabilera hori ez duten lurretan, berriz, paisaiari aniztasuna emango dioten zuhaitzen ezarpena ahalbidetzea. Natura-inguruneari lotutako era askotako atsedeen erabilerek, nahitaez landa-lurzoruetan kokatu behar diren jarduerak eta lurraldeaz gozatzeko ekipamenduek, hala nola Sare Berdeko ibilbideek, erabilera intentsiboagoa duten atsedeen-eremuek eta kanpalekuek kokaleku egokiak aurki ditzakete lur hauetan. Garrantzi handikoa da eremu hauetan garatuko diren erabilerak paisaian egoki integratzea, hartara ikuspegi zabalak dituzten eta gainerako lurralde menditsuaren oso bestelakoak diren espazio irekiak izaten jarraituko baitute.

d. Lur gaineko uren babesa

Eskualde-egiturako ibaiak laburrak dira, mendiko ibaien ezaugarriak dituzte, eskualdearen mugak markatzen dituzten gailurretan jaiotzen dira-eta. Ingurumen eta lurralde interes handiko elementuak dira. Ibilguak komunikazioak iparraldetik hegoalderako noranzkoan ahalbidetzen dituzten korridore naturalak dira eta goi-mendiko eremuak kota baxuagoetako lautadekin konektatzen dituzten iraganbide ekologikoen eginkizuna betetzen dute. Batzuetan ia haizpitarte izatera iristen diren esparru meharretan zehar igarotzen dira, uholde-lautadarik apenas duten eta ibai-bazterrak mendi-hegalekin nahasten diren tarteetan. Salbuespen gisa soilik, aurreko atalean deskribatutako haran-hondoko lautadekin bat egiten dutenean, ibai-eremuek lautada zabal samarrak izaten dituzte.

Ibilguen artekatzea eta ibaien luzera laburra faktore erabakigarriak dira ibaien inguruetan uholde-arrisku handia izateko, ur-goraldiak oso bizkor gertatzen baitira, agertuko direla aurreikusteko ia denborarik eman gabe.

Hirigune nagusietako efluenteen arazketarik eza eta herrigune sakabanatuek eta nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak sortutako poluzio barreiatua, inguru askotan ibai-bazterreko landaredia desagertu izanarekin batera, espazio hauen ingurumen-kalitatea murrizten duten faktoreak dira. Alabaina, oso ongi kontserbatutako ibai-tarte asko daude oraindik ere; horien artean Artziniega, Ibalzibar, Izalde eta Arnauri ibaiak nabarmentzen dira. Espazio hauen hauskortasuna eta uholdeekiko sentikortasuna kontuan hartuta, ur-bazterreko formazio naturalak mantentzea eta hedatzea komeni da, ur-goraldien eragina jasan dezaketen beste erabilera batzuk saihestuz, izan ere ingurumen-baliabideak mantentzera eta atsedeen-erabilerei lotutako bide eta azpiegitura bigunak kokatzeko eremu gisa erabiltzera zuzendutako espazioak baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra) da ibai, erreka eta ur-masen inguruetan lurzoru urbanizaezina antolatzeako funtsezko erreferentzia. Lurraldearen Arloko Plan horri jarraiki, lurzoru

urbanizaezinean eskualde-egiturako ibilguak drainatze-arroen azalerak emandako osagai hidraulikoaren arabera sailkatzearekin bat datozen babes-zerrendak ezartzea planteatzen da. Horrela, ibai-tarteen jabari publiko hidraulikoaren mugatik bi aldeetara zabaltzen diren zerrendak hartuko dira interes hidrogikoko eremuetarako babes-esparrutzat. Zerrenda horien zabalera finkatzeko, ibaien dimentsio hidraulikoa ez ezik, ingurunearen hirigintza eta ingurumeneko ezaugarriak ere hartuko dira aintzat:

- 50 metro, Nerbioi ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Palanka eta Pagatxa erreken artean, Altube ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Nerbioi ibaiarekin bat egiten duen gunetik Argaitza errekarainoko tartean, eta Izalde ibaiaren lehen kilometroan Herrerias errekararekin bat egiten duen gunetik. Era berean, Maroñoko urtegiaren inguruan zabalera bereko zerrendak barne hartuko dira.

- 30 metro, Nerbioi ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Pagatxa erreken eta Delikaren artean, Altube ibaiak eskualde-egituran egiten duen gainerako tarterako, Arnauri ibaiaren ibilbide osorako (Gorbeiko natura-parkean barne hartzen dena izan ezik), Herrerias erreka eskualde egituran duen ibilbide guztirako, Ibalzibar errekararekin bat egiten duen tartetik, eta Izalde ibairako, Eskorreta errekararekin bat egiten duen guneraino, eta ingurune fisikoaren antolamendu-mapan irudikatzen diren, berariazko identifikaziorik ez duten eta babes bereziko esparruen artean barne hartu ez diren gainerako ibilguen lurzoru urbanizaezinerako.

Sare hidrografikoaren gainerakoaren kasuan, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da, babes hidrogikoko ondorioz mugatu beharreko erabilerei dagokienez.

100 metroko zerrendetan lurzoru urbanizaezineko berezko eraikuntzak, jarduerak eta erabilerak soilik onartuko dira. Gaur egun dauden urtegien inguruan zerrenda hau 200 metrokoa izango da.

Ongi kontserbatutako landaredia hartzen duten zerrenda horien esparruetan, identifikatutako landare-formazioaren kanpoaldeko mugaz 10 metro harantzago zabalduko dira zerrenda horiek. Puntu horiek ingurune fisikoaren antolamendu-mapan identifikatzen dira, baita I. eranskinean zerrendatu ere. Eremu hauetan dauden landare-formazioak zaintzea eta ur-bazterrak babesteko eta hobetzeko ekintzetan integratzea da irizpidea. Eranskin horretan, halaber, uholdeei, irristatzei eta higadurari lotutako arriskuei aurrea hartzeko ingurumen-hobekuntzako ekintzak garatu behar diren esparruak eta akuiferoen poluzioaren aurrean bereziki urrakorrak diren espazioak jasotzen dira. Espazio horiek, arautze berezien pean beren baldintza fisiko edo ingurumen-baldintza berezien ondorioz, ur-bazterretako ekosistemen parte izan behar dute eta hobetzeko eta lehengoratzeko beharrezkoak diren ekintzak garatuko dira eragin edo narriadura handienak dituzten esparruetan.

e. Nerbioiko harana biziberritzea eta hobetzea

Nerbioi eskualde-egiturako ibai nagusia eta ingurumen-elementu garrantzitsuenetakoa da. Nerbioiko haranak izan duen garapen trinkoak, Arakaldo-Amurrio tartean batik bat, espazio horren transformazio garrantzitsuak eragin ditu, eskualde-egiturako ingurune fisiko egituratzen duten elementuen artean izaera berezia eman diotenak. Haran-hondoa ia erabat beteta geratu da tarte meharretan, espazio urria lortzeko lehiatzen diren hiri-erabilerak, industriak eta azpiegiturak gainjartzearen ondorioz. Horren eta bere emari handiaren ondorioz, uholde-arriskuak askoz ere handiagoak dira eskualde-egiturako gainerako ibaietan baino, horiek bezalaxe, bat-bateko ur-goraldi handiak izaten baititu. Uren poluzioa eta ur-bazterreko formazioak ia desagertu izana espazio horren okupazio trinkoaren ondorio dira eta ibaia eta ibaiertzak erabiltzeko aukerak nabarmen mugatzen dituzten baldintzak sortzen dituzte gaur egun.

Hiri-korridore arras antropizatua eta ingurumen-elementu adierazgarria izateak zehazten du espazio honen bokazioa, lurraldeari kalitate berezia ematen dion aktibo natural garrantzitsua izateko ahalmena baitu. Ibilgua biziberritzea, paisaia hobetzea eta urpean gera daitezkeen eremuetan erabilerak antolatzea, horiek dira Nerbioi ibaia eskualde-egituraren etorkizunerako

funtsezko eginkizuna beteko duen erdiko espazio hau birkualifikatzeko balio handiko elementu gisa bultzatzeko oinarritzko ekintzak.

Nerbioi ibaiaren ibilguak aukera ezin hobe eskaintzen du hiriguneak birkualifikatzeko eragiketetarako, eremuko herrigune nagusien inguruetan aisia-espazioak eta naturarekiko harremanetarakoak garatzeko eta hazkunde-ardatz nagusiaren garapena eskualde-egituraren balioa handitzean eragingo duen ingurumen eta paisaia erakargarritasun handiko sistema berde baten bitartez artikulatzeko.


Delika eta Arakaldo arteko Nerbioi ibaiaren ibilguan gaur egun uholde-arrisku handiena duten lurzoru urbanizaezineko eremuak biziberritzeko eta hobetzeko esparru batean integratu behar dira. Esparru hori lurraldearen muinean ingurumen-azpiegitura handi bat konfiguratzera zuzenduko da, Nerbioiko Parke Lineala haraneko kokaguneak konektatuko dituen korridore ekologiko, paisajistiko eta aisiako baten modura garatzea ahalbidetuz.

3.2. INGURUMEN KALITATERAKO EKIMENAK

Aiarako eskualde-egituran dentsitate txikiko landa-espazioak aurki daitezke industria-eremuekin eta hiriguneekin batera eremu metropolitarrak baten inguruetan. Horren ondorioz, era askotako ingurumen-arazoak agertzen dira, lurraldeko esparru bakoitzaren zirkunstantzia zehatzetara egokitutako ekintza desberdinak behar dituztenak.

Eskualde-egiturako erakundeek eta talde sozialen aburuz, hezkuntza-jarduerak eta ingurumena hobetzekoak dira etorkizunean lehentasun handiena eman behar zaien jarduerak ekonomiko berritzaileak. Bokazio horrek, lurraldearen ezaugarriekin eta planteatzen dituen ingurumen-arazo ugariekin batera, eskualde-egituraren ingurumena hobetzeko ekintzen programa zabal bati ekiteko aukera sortzen du. Ekintza horiek berehalako interesa dute lurralde-espazioaren birkualifikazioan, Lurraldearen Zatik Planak proposatzen dituen garapen-orientabide berriak ahalbidetuz. Ingurumena hobetzeko eragiketa eta esperientzia berritzaileak gauzatzeak, gainera, eskualdeko ekonomia dibertsifikatzeko aukera ederra eskaintzen du, industria eta zerbitzu-etako enpresak agertzea eta ingurumena kudeatzeko jardueretan espezializatutako langileak prestatzea bultzatuko baitu, eta sektore horrek etorkizuneko hazkunde-potentzial handia du.

Eskualde-egiturako ingurumen-arazo orokorrak



a. Uraren kudeaketa

Uren kalitatea hobetzea lehentasunezko jarduna da. Nerbioi ibaiaren poluzioa eskualde-egiturako natura-elementu garrantzitsuenetako baten erabilera-aukerak zeharo mugatzen dituen ingurumen eta pertzepzio narriadurako faktorea da. Aurreikusitako arazketa-sistemak abian jartzea eta ibilguan zehar egiten diren isurketak kontrolatzea lurraldearen erakargarritasuna areagotzeko aukera berriak irekiko dituzten eragiketa estrategikoak dira. Poluzioa murriztea ezinbesteko faktorea da Lurraldearen Zatik Planak Nerbioi Parke Linealaren inguruan planteatzen dituen eragiketa estrategiko handiak bideragarri egiteko eta Ardatz Teknopolitarrean zehar proposatzen diren hiri-hobekuntzako ekintzak gauzatu ahal izateko.

Herrigune txikietan ur zikinen kudeaketa sistema konbentzionalekin nekez konpon daitezkeen arazoak da, egiteko eta mantentzeko garestiak dira-eta. Sarritan efluentek ezin tratatzea izaten da emaitza, eta lur gaineko zein lurpeko uretan eragina duen poluzio barreiatua sortzen dute. Urmaeleratzean eta iragazki berdeetan oinarritzen diren sistema bigunak etxeko urak tratatzeko aukera interesgarriak dira kasu horietan, lurrera itzultzen baitira berriz erabiltzeko. Gainera, horri esker berdegune iraunkorrak eta produktibitate handiko baso-espazioak mantentzen dira.

Uren kalitatea berreskuratzeko eta ibai-ibilguak lurralde-aktibo garrantzitsu bihurtzeko garrantzi handiko beste ekimen bat ibai-bazterrei lotutako galeria-basoak berreskuratzeko datza. Landaredi horrek funtsezko eginkizuna garatzen du ibaien autoarazketa-ahalmena areagotzeko eta espezie basatiak eta ekosistema naturalak berreskuratzeko. Atsedan-ibilbideak

egokitzearekin batera gauza daitekeen jardun hori funtsezkoa da ur zikinak arazteko premiak murrizteko eta, batez ere, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak sortzen duten eta beste metodo batzuekin kontrolatu ezin den poluzio barreiatuak eragindako narriadurak saihesteko.

Ura zenbat eta eraginkorrago erabili, orduan eta txikiagoa izango da araztu beharreko emaria eta, horrenbestez, errazagoa izango da uraren kalitate-maila handiak lortzea. Etorkizunari begira, interesgarria da ura kudeatzeko sistema integralak sortzea, eta horretarako garatuko dira hainbat esperientzia pilotu: hiri eta industriako erabileretan efluenteak berrerabiltzea, etxeko kontsumoan eraginkortasuna hobetzeko sistemak hobetzea, ur beltz eta grisetarako sare bereziak garatzea eta abar.

Nolanahi ere den, ura funtsezko faktorea da lurralde honen etorkizunerako, baliabide horren kudeaketaren bi alderdi estrategikori lotuta: hornidura bermatzea eta ur zikinak araztea.

Hornidura bermatzeari dagokionez, ezinbestekoa da Goi Nerbioiko eremuetan lehorraldietan behin eta berriz agertzen diren defizitak konpontzea eta lurraldeko kokagune guztietan epe luzerako ur-erabilgarritasuna ziurtatzea, Bilbaoko eremu metropolitarrak bere baitan hartzen duen konplexutasun handiko hornidura-sistema baten esparruan. Jakina, ura aurrezteko neurriak, batez ere hornidura-sareak ihesik gabe egoki mantentzeko eta urbanizazio barreiatuko prozesuak kontrolatzeari dagozkionak, sistemaren epe luzerako iraunkortasuna ziurtatzeko funtsezko alderdiak dira. Gaur egungo kudeaketa-sistemak indartzea, hala nola Aiarako Ur Partzuergoa eta Bilboko Ur Partzuergoa, nahitaezkoa da helburu hori lortzeko. Dena den, uztailaren 24ko 1664/1998 Errege Dekretuak onartutako Iparraldeko III. Arroko Plan Hidrologikoan ezarritakoaren arabera, ura biltzeko azpiegitura berriak garatu behar dira gaur egun Maroñoko urtegiak asetzen dituen zuzkidurak osatzeko.

Era berean, uren kalitateari dagokionez, azpiegitura berriak garatzea premia atzeraezina da.

Azkenean Urduña-Orduñan, Markijanan eta Llodion ur zikinen hiru araztegi eraikitzeke hartutako erabakia oso konponbide egokia da, lurraldeko biztanle-dentsitate handieneko eremuan dimentsio handiko jardun bakar batek eragingo lukeen inpaktua saihestea ahalbidetzen baitu. Azpiegitura horien garapenari lehenbailehen ekitea eta Lurraldearen Zatikoko Plan honen arauetan jasotzen diren ingurumen eta lurralde integrazioko oinarrizko neurri batzuk hartzea, hori da giltza.

b. Airearen kalitatea eta soinu-erosotasuna

Industria-espazioen eta bizitegi-espazioen arteko hurbiltasunaren eta haran-hondoko topografiaren ondorioz, industriaren efektu gogaikarriek, hots, zaratak zein emisio poluitzaileek, zuzeneko eragina dute herrigune nagusietan jendea bizi den eremuetan. Horrez gain, azpiegitura ugari (errepideak, autobidaiak eta autobideak, trenbidea, etab.), batez ere Amurrión, Luiaondon, Llodion eta Arakaldon, bizitegi-espazioetatik oso hurbil igarotzen dira. Faktore horien guztien emaitza hirien pertzepzioan eta biztanleen bizi-kalitatean eragina duen hiri-eremuetako erosotasunik eza da.

Lurraldearen Zatikoko Planak Nerbioiko ardatzeko hiri berrikuntza eta hobekuntzarako egiten dituen proposamenek inpaktu horiek murrizteko funtsezko ekimena eratzen dute, inpaktuguneen eta eremu sentikorren arteko bereizketa argia ezartzeko aukera planteatzen baitute hainbat ekintzaren bitartez: industria-espazioetan erabilerak aldatzea, produkzio-jarduerak beren ingurumen-inpaktua murriztuz birkokatzeke espazioak gaitzea, hiri-kalitatearen gaineko ondorio negatiboak saihesteko azpiegitura ardatzak berriz diseinatzea, eta abar.

Perturbazioak sortzen dituzten guneetako asko ezabatzen dituzten hirigintza-jardun horiekin batera, inpaktu-mailak murriztera eta ondorio negatiboak arintzera zuzendutako beste ekimen batzuk garatu beharra dago. Ekimen horiek hurrengo atalean adierazitako energia-kudeaketaren eta mugikortasunaren arloa eta lurraldean ingurumen-orekak hobetzen lagunduko duten elementuen ezarpena hartzen dituzte ardatz.

Arazoa arintzeko neurri garrantzitsuena behealdeko eremuetan baso-azalera hedatzea da. Hala, poluitzaileak atzemateko eta atmosfera garbitzeko tokiko landarediaren ahalmena handitu

egingo da, hiri-eremuetan klima-erosotasuneko baldintzak eta zarata murriztekoak hobetzen diren aldi berean. Neurri horrekin batera, ahal den lekuetan azpiegitura nagusiak bizitegi-eremuetatik isolatuko dituzten landare-hesiak sor daitezke, hiriko bizitzaren gaineko trafikoaren inpaktua murriztu ahal izateko.

c. Energia-kudeaketaren eraginkortasuna

Emisio poluitzaileak murriztea eta energia eraginkortasunez erabiltzea ezin bananduzko faktoreak dira. Eskualde-egituran kanpoko energiarekiko mendekotasun handia dago, erregai fosilak erretzean oinarritua batik bat. Egoera hori energia-eraginkortasuna areagotuz eta hornidura-iturriak dibertsifikatuz aldatzea epe ertainerako ingurumen-hobekuntzako eta lehiakortasun ekonomikoko funtsezko helburua da.

Baterako sorkuntza hedatuz produkzio-jardueretan energia-kontsumoa murrizteak oso aukera handiak ditu, beroan oinarritutako industria-prozesuetako espezializazioa kontuan hartuta. Elektrizitatea industria-labeetako soberako beroaren bitartez sortzeak askoz ere modu eraginkorragoan aprobetxatzen du energia, kontsumoa eta ingurumen-arazoak murrizten dituen aldi berean.

Hiriko trafikoan banaketa-lanetarako, garraio publikorako eta tokiko zerbitzuetarako ibilgailu elektrikoak edo poluzio-maila txikiko erregaiek (gas naturala, biodiesela, etab.) eragindakoak erabiltzea oso neurri garrantzitsua da, Europako hirietan orokortzen ari dena eta hiri-eremuetako irudia eta ingurumen-kalitatea modu ikusgarrian hobetzea.

Dentsitate txikiko espazioetan zaila da bizi-kaliterako gero eta garrantzitsuagoak diren azpiegiturak eta zerbitzuak izatea. Kokaguneak sakabanatuta daudenez eta biztanle gutxi dituztenez, ezinezkoa da garraio publiko, energia edo ur zikinen arazketako sistema konbentzionalak mantentzea. Hainbat operadoreen arteko lehiari lotutako prezio-murrizketak ez dira landa-espazioetara iristen, ez baitute komertzialki erakargarriak izateko adinako eskaririk. Horrela, lehendik ahulduta dauden espazio horien lehiakortasuna murriztu egiten da eta, hain zuzen ere, merkatuen liberalizazioa bezalako prozesuek edo ingurumen-kalitate handiagoaren exigentziak gaur egungo lurralde-desoreka areagotzeko arriskua sortzen da.

Badaude, alabaina, arrisku horiek saihestea ahalbidetzen duten teknologia berriak. Tokiko eskalarako eta modu autonomoan funtzionatzeko pentsatutako berrikuntzak dira, ingurumenaren alderditik egokiak, eta instalatzeko eta mantentzeko kostu txikiak dituztenez gero, oso egokiak dira landa-lurraldeetarako. Teknologia konbentzionalak baliabideak kontsumituz eta poluitzaileak sortuz asetzen dituzten premia berberei erantzuteko ziklo naturaletan inolako aldaketarik eragin gabe integratzen diren teknikak dira; neurri handi batean horretan dautza teknika horien abantailak.

Eskualde-egiturako dentsitate txikiaren eremuak teknologia berri horien erabilera bultzatzeko esparru egokiak izan daitezke, horrek beren zuzkidurak hobeto baitituzte eta ingurumen-kalitate handiko espazioaren izaera indartu. Oso interes handiko aukera batzuk antzematen dira lurraldean.

Energia arloan, lurraldearen potentzial eolikoa eta eguzkitikoa aprobetxatzea energiaz hornitzeko oinarritzko sistema izan daiteke etorkizunean. Frogapen-esperientziak gara daitezke lurralde-ereduak egiten dituen herriguneei balioa handitzeko eta gune tradizionaletan jarduera berriak kokatzeko proposamenetako batzuei loturik. Hornidura-iturri horiek orokortzeak oso eragin handia izan dezake ingurumen-kalitatea eskaintzen duen lurralde honen irudian, eta ekarpen garrantzitsua egin dezake gaur egun inguru horietako paisaia-inpaktu nagusiak eragiten dituzten linea elektrikoaren dentsitatea murrizteko.


Biomasa energia-iturri gisa aprobetxatzea aukera berezia da. Eskualde-egiturako baso-azalera handiek zurgai ez diren baliabide ugari sortzen dituzte mendiak egoki kudeatzeko ezinbesteko zereginen ondorioz, eta gaur egun ez dute inolako merkataritza-irteerarik. Elementu horiek energia sortzeko berrerabil daitezke, beroa eta elektrizitatea sortzen duten poluzio-maila txikiko gasifikazio-prozesuen bitartez. Baso-jarduerak pisu handia duten zenbait eremutan egin dira esperientzia batzuk: prozedura hori berokuntza zentralerako zerbitzua tokiko mailan eskaintzeko

erabiltzen da, hartara sistema zentralizatu batek etxe, industria txiki, berotegi eta abarren bero-premiak asetzen ditu.

d. Paisaia berreskuratzea

Nerbioiko haranean eskualde-egiturako hiri, industria eta azpiegitura garapen garrantzitsuenak kontzentratu dira. Oso bizkor gertatu den prozesu horretan, erabilera berriek ordeztu egin dituzte nekazaritza-jarduerak eta lurraldeko elementu natural asko, eta espazio horren paisaia-kalitatearen galera izan da emaitza.

Paisaiaren narriaduran eragina duten elementuak



Haranaren konfigurazio topografikoaren ondorioz, mendi-hegalak dira paisaia-elementu begibistakoenak, bai herriguneetatik bai harana igarotzen duten azpiegituretatik begiratuta. Pinuak osagai nagusi dituzten baso-masak paisaia honen pertzepzioan gailentzen diren elementuak dira, zuhaitz-estalki iraunkor guztiz erakargarria eskaintzen dute-eta. Alabaina, lurraldearen pertzepzioa itxuraldatzen duten eta sarritan inpresio negatiboa helarazten duten elementu ugari daude: errepideen eta trenbidearen bazterrak, ezponda soilak, bertan behera utzitako finkak eta aldapa handiko lurrak, modu desordenatu samarrean eraikitako eremuen erdian enklabe narriatuak bezala geratzen direnak, eta eraikuntza bakartu asko, sarritan oso hondatuta daudenak, hala industria-nabeak nola etxebizitzak. Elementu horiek guztiek desordena eta axolagabekeria sententzia helarazten dute, lurraldearen pertzepzioan negatiboa. Sortzen duten ingurumenaren gaineko eraginari beste arazo batzuk gehitzen zaizkio: isurketak eta higadura, hondakindegia kontrolatu gabeak, etab.

Paisaia berreskuratzeko programa bat garatzea proposatzen da, elementu horien gain eragingo duten hainbat jardun selektiboren bitartez, korridorearen itxura hobetuz lurraldearen erdiko eremu honen ingurumen-kalitatearen hobekuntzan eragin handia izango duen eragiketa gisa. Eragiketa nagusiak espazio horietan erabilera berriak finkatzera zuzenduko dira: baso-erabilerak zabaltzea, ezpondak eta isurketa-eremuak landarediz hornitzea, paisaian eragin negatiboa duten azpiegituren, hiri-eremuen eta eraikuntza berezien bazterretako paisaia-tratamendua, ikus-pantailak eta lorategiak ezarriz, urbanizatutako eremuetako eraiki gabeko enklabeetan berdegune txikiak sortzea, eta abar.

4. NERBIOIKO ARDATZ TEKNOPOLITARRA

Nerbioiko itsasadarra Bilbaoren berrikuntzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren etorkizuneko aukera berrien gune enblematikoa da. XXI. mendeko Bilbaoren eta, hedaturaz, Euskal Autonomia Erkidegoaren borondatea eta guraria, nazioartean gorantz egiten ari diren nodoen artean egon nahi duen eskualde-hiri gisa, adierazten duten proiektu berritzaileenetakoen erakusleho moduko eginkizuna betetzen duen hiribide handia da Itsasadar berria.

Iraganean Bilbaoren hazkundeak inguruko espazioetan transformazioak behar izan zituen bezalaxe, etapa berri honek aldaketak behar ditu aldameneko eremuetan Itsasadarreko proiektu bereziak bideragarriak izan daitezen eta Euskal Autonomia Erkidego osoa hartuko duen lurralde-berrikuntzako prozesu orokortu baten abiarazle-funtzioa bete dezaten.

Goi Nerbioiko harana, Llodio eta Urduña-Orduña artean, aldaketa-prozesu hori hedatzeko ardatz naturala da. Itsasadarrak izan duen metamorfosia ez zaio itsasadarrari mugatu behar; aitzitik, ezinbestekoa da ibaian gora hedatzea dibertsifikatzeko eta lurralde anizkun eta aukeraz betetako horrek eskaintzen dizkion aukerak aprobetxatzeko, berrikuntza eta garapeneko ardatz handi bat osatuz.

Ardatz Teknopolitarraren proposamenak hedatzeko eta aldatzeko aukera bikaina eskaintzen dio lurraldeari. Itsasadarra hegoalderantz hazten da bereizteko eta garapen-aukera berriak gehitzeko. Asmoa dentsitate eta pilaketa txikiagoko espazio batean haztea da, natura-ingurune hurbil eta erakargarriagoarekin, giza eskalako hiriguneekin eta finkatuta dauden esparruetan ezinezkoak diren garapenak ahalbidetzen dituzten aukera-eremuekin.

4.1.

NERBIOIKO PARKE LINEALA

Nerbioi ibaia Ardatzaren argudio natural nagusia da eta bera da ardatza fisikoki posible egiten duena, garapenerako egokiak diren lur lau urriak kokatzen diren espazio oso horri jarraipena ematen dio-eta. Urte askotan, Nerbioi ibaia ur zikinak isurtzeko kanal bat eta arrisku-iturri bat besterik ez da izan, sarritan egiten baitzuen gainezka. Etorkizunari begira oso garrantzitsua da Ardatzeko paisaiaren eta natura-baliabideen egoera hobetzea. Funtsezko ekimena da bizitegi eta ekonomia garapen berrietarako espazio honen eragingarriak areagotzeko eta hiri-asetamendu nagusietako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko. Nerbioi ibaian zehar eskualde-egiturako biztanleriaren ia %90 bizi da. Hori dela-eta, ezinbestekoa da ingurune erakargarria eta ingurumena zaintzen duena ziurtatzea, herritarren ongizatea bermatuko duena eta naturarekiko harremanen eguneroko eskariak asetzeko aukera emango duena, ibai-fatxada horretan hiri-erakargarritasuna hobetzeko argudio garrantzitsua duten guneetan.

Nerbioiko uren arazketa ezinbesteko baldintza da ibai-bazterrei lotutako Parke Lineal handi bat Ardatz Teknopolitarraren osagai nagusietako bat bezala garatu ahal izateko. Ardatzaren abantaila konparatibo handietako bat nabarmenduko duen korridore berdea bultzatu nahi da, natura beti hurbil eta esku-eskura duen garapen organiko eta erakargarriko esparruaren izaera azpimarratuko duena. Parke Lineala Nerbioi ibaia ibilbide osoan zehar Ardatzaren jarraitutasun ekologikoko elementu gisa finkatzera zuzendutako pieza da. Hazkunde-esparru berri honetan proposatzen diren kalitate handieneko erabilera berritzaileenak kokatzeko erreferentea izango den espazio guztiz erakargarria eratzea da asmoa.

Parkeak bere gain har ditzakeen funtzioak funtsezkoak dira proposatutako lurralde-eredurako. Bertako biztanleentzat erakargarriak diren aisia-espazioak eta naturarekiko harremanetakoak finkatzeko aukera ematen du, paisaia hobetuz eta Ardatzeko hirien arteko konexio-elementu biguna eskainiz. Funtsezko elementua da Nerbioiko haran antropizatuan zehar lurraldearen pertzepzioa hobetzeko, giro eta erabilera-aukera ugari eskaintzen baitu. Tipologia ugari har ditzake bere gain, kokalekuaren eta tarte bakoitzaren ezaugarri fisikoen arabera: tratamendu formalagoa, geometrikoa eta hiri-izaerakoa duten eremuak, ibiltarientzako eta txirrindularientzako bidezidorrak, atsedeen, aisia eta kiroleterako guneak, ontziralekuak, tratamendu naturalagoa duten esparruak, zuhaitziz, hezegunez eta kanaberadiz hornituak, belardiak eta mendi-hegaletako baso-eremuekin konektatzen diren bideak eta abar.

Bere mugaketa lurrraren ezaugarri fisikoek zehazten dute neurri handi batean. Hala, berriro gertatzeko 10 urtetik beherako aldietan uholde-arrisku handiena duten eremuak hartzen ditu, bere diseinuan fluxu hidraulikoak kontrolatzen lagunduko duten erretentzioko urmaelak eta putzuak barne hartuz eta ingurune arras berezia eratuz, oso erakargarria aisia-espazio gisa eta inguru hauetatik aspaldi samar desagertutako animalia eta landare espezieentzako habitat natural gisa.

Nerbioiko Parke Linealaren garapena Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan adierazitako esparruen gainean gauzatuko da eta atsedeen-eremutat joko da. Espazio hori lur gaineko urak babesteko kategoriari dagokio eta, horrenbestez, lurzoru urbanizaezintzat hartuko da eta lurzoru-mota horri dagokion erabilera-arautzea aplikatuko zaio.

4.2.

ARDATZAREN AZPIEGITURA EUSKARRIA

Azpiegitura-oinarri sendoa erabilgarri izatea da Ardatz Teknopolitarraren proposamenari zentzua ematen dion oinarritzko elementua. Ardatza bere luzera osoan igarotzen duten errepide, trenbide, gas natural eta zuntz optikoaren azpiegiturak lurralde honen lehiakortasunerako funtsezko faktoreak dira, tokiko garapenak mugikortasun iraunkorreko irizpideekin eta biztanle eta enpresaburu berriak erakartzekoekin artikulatzea eta konektatzea ahalbidetzen baitute.

Proposamen honetan komunikabideak Ardatza egituratzen duten elementu bihurtzen dira, garapen hiritar eta landatarreko esparruak integratzea ahalbidetuz eta bokazio bereziak dituzten espazioen artean dauden osagarritasunak eta sinergiak aprobetxatuz. Ezinbestekoa da azpiegituren diseinua eta trazadura berritzeko eta hazteko aukerekin bat etorritz planteatzea, Nerbioiko Ardatz Teknopolitarreko guneetan hiri-kalitate handia lortu nahi bada.

Ardatz Teknopolitarraren azpiegitura-euskarriak oinarritzko hiru komunikabide hartzen ditu sostengu.

4.2.1. Nerbioiko errepide lasterra.

Iparraldetik hegoaldera, A-625 errepideak ibaiaren ibilbideari jarraitzen dio, eskualde-egiturako hirigune nagusiak elkarrekin konektatuz. Errepide hori da Ardatzeko eta eskualde-egitura osoko hiriguneen eta Bilbaoko eta Vitoria-Gasteizko hiri-eremuen arteko komunikazio arina eskainiko duen errepide lasterra garatzeko oinarria. Hiri-eremuetan zeharreko pasaera-trafikoa ezabatuko duten eta bidaia-denborak murriztuko dituzten saihebidetuek eraikitzea da komunikazio-azpiegitura honen funtsezko alderdia. Azpiegitura hori eskualde-egitura Aiarako haranean zehar igarotzen duen eta Amurrión A-625 errepidearekin konektatzen den A-624 errepideak osatzen du, Arabarekiko komunikazioa ahalbidetuz.

4.2.2. Trenbidea.

Bilbao – Urduña-Orduña aldiriko linea oinarri-oinarritzko elementua da Nerbioiko Ardatz Teknopolitarraren proposamenerako. Bizitegi-erabileren eta jarduera ekonomikoen Ardatzean zeharreko hazkundea, hiri-dentsitatea areagotzea sustatuz, ahalmen handiko trenbide-garraio publikoko sistema baten existentzian oinarritzen da batik bat. Erosotasun eta bizkortasuneko irizpideekin sortutako sistema horrek konexio eraginkorrak ahalbidetzen ditu Ardatzeko nodoen artean eta horien eta Bilbaoren artean. Trenbideak proposamenaren multzoan duen garrantziaren ondorioz, tren-geltokiak elementu nagusiak dira eskualde-egituraren hiri-garapenerako iradokizunetan, izan ere zuzkiduren, bizitegien eta berrikuntza ekonomikoen arloko eskaintza nagusiak beren inguruan kontzentratzen dituzten truke modaleko puntu gisa planteatzen baitira. Bestalde, epe laburrera oso garrantzitsua da trenbide-linea Llodion lurperatzeko proposamena planteatzea, funtsezko estrategia baita oztupoak kentzeko eta burutzaren hiri-berrikuntzako ekintzen aukerak areagotzeko.

4.3.

LLODIO, HIRI BERRIKUNTZAKO ERAGIKETA PILOTUA

Llodiok boskoiztu egin zuen biztanleria 1950 eta 1970 bitartean, udalerrian industria-instalazio handiak ezarri zirenean. Hazkunde azkar hori fisikoki mugatua zen espazio batean gauzatu zen, garatzeko ahalmena duten lurzoru urriak aldapa handiek mugatzen duten haran mehar baten hondoan kontzentratzen dira-eta. Horren emaitza izan zen espazioa lortzeko lehia bizia, ezinbestean arazo ugari eragin zituen: erabilera-nahasketa industria-eremuen eta bizitegi-eremuen artean, behealdeko eremuak ibai-ertzeraino bertaraino betetzea eta tipologia heterogeneoko eraikuntzak ugaritzeak sortutako hiri-garapen desegituratua, horien kokapena ez baitzegoen hiri-bilbearen koherentziaren mende, ekimen bakartuen eta eraikuntza berriak kokatzeko aukera topografikoen mende baizik. Industria-krisialdiak eta 1983. urteko uholdeek agerian jarri zituzten hiri-eredu horren arriskuak eta mugak.

Llodioren garapenak funtsezko eskariei erantzun behar die, hala nola etxebizitza eskuratzeari, dibertsifikazio ekonomikoari, kalitateko enplegua sortzeari eta zuzkidurak hobetzeari. Bilbaorekiko hurbiltasuna, komunikazio-sistema metropolitarraren bikainen existentzia eta tokiko arazo eta aukeren udalaz gaindiko ikuspegi berria oinarri-oinarrizko abantailak dira etorkizuneko erronkei begira. Aukera horiek aprobetxatzeko behar-beharrezkoa da funtzio berriak identifikatzea eta eskualdeko esparruan eta esparru metropolitarraren bizitegi-espazio, zerbitzu eta jarduera ekonomiko berrietarako espazio erakargarri gisa posizionatzeko gai izango den hiri-eredu berri bat diseinatzea.

Gaur egun probetxurik ateratzen ez zaien hiri-aktiboak indartzera, zaharkituta dauden edo hiriaren irudian eta funtzionaltasunean eragin negatiboa duten esparruak berriz diseinatzera eta funtzio berriz hornitzera eta Llodioko hiri-eskaintza zabalduko duten garapen berrien agerpena bultzatzera zuzendutako asmo handiko hiri-berrikuntzako eragiketa bat abian jartzea proposatzen da.

4.3.1. Trenbidea lurperatzeari lotutako aukerak.

Gaur egun trenbidea hiri-ehuna hausten duen elementua da, Nerbioi ibaiaren eskuinaldean oztopoa sortzen duena. Horren ondorioz, inguru horretako garapenak hiriko gainerako eremuetatik deskonektatuta gauzatu dira, desordenatuta, irakur daitekeen egiturarik gabe eta hiri-hazkunderako egokiak diren lurzoru urrien aprobetxamendu eraginkorrik gabe.

Trenbide-tarte hori lurperatzeko aukera, epe ertain edo luzera, Llodiok haran-hondo osoan zehar garapen jarraitua eta egituratua eduki ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak sortzeko aukera garrantzitsu bezala agertzen da. Espazio horren harrera-ahalmena nabarmen handitzen da, hiri-irudia hobetzeko, ekipamendu berriak kokatzeko eta bizitegi eta produkzio espazio berriak sortzeko funtsezko eragiketak ahalbidetuz. Lurperatzea autobiarren erdiko lotunaren adarraren eta Guardian Llodio enpresako fabrikazio-lerro nagusiaren hegomendebaldeko muturraren arteko tartean planteatzen da, pertsonentzako eta salgaientzako egungo trenbide-zerbitzuak mantenduz.

Ekimen horrek, gainera, trenbideak garraio metropolitarrako modu nagusi gisa betetzen duen eginkizuna indartzeko aukera emango luke. Tren-geltokiaren egungo kokalekuak hedatzeko eta funtzio berriak hartzeko dituen aukera urrien aurrean, lurperatzeko eragiketak eskualdeko trukatzaille handiaren ezaugarriak izango lituzkeen esparru berri bat garatzeko espazioa libratuko luke, trenbidearen erabilera sustatzeko ezinbestekoa den zentraltasun-posizioa mantenduz. Trukatzaille hori hiri-zentraltasun berriko elementu garrantzitsu gisa ulertu eta sortu behar da, eta bere inguruetan etxebizitzak, lantokiak, merkataritza-espazioak eta zerbitzuak kokatu.

4.3.2. Parke Nagusia eta Nerbioi ibaiaren ibilgua egokitzea.

Nerbioi ibaia Llodioeko gunea inguruan garatu duen elementu natural nagusia da. Ibaia berreskuratzea eta hiriaren eszena hiritarrean integratzea funtsezko ekimena da hiri-irudia hobetzeko eta gune honen funtzio eta jarduera berriak hartzeko erakargarritasuna areagotzeko.

Orain arte ahalegin garrantzitsuak egin dira ildo horretan, baina, inolako zalantzarik gabe, trenbidea lurperatzeak kendu egingo du gaur egun ibaira eskuinaldetik iristea eragozten duen oztopoa. Hiri-espazioaren erdialdea okupatuko duen parke handi bat sortzeko aukera agertzen da, hiriaren argudio ludiko eta bisual handi gisa, artean okupatu gabe geratzen diren ibai-bazterreko espazioak berreskuratuz eta epe luzera esku hartuz erabilera-aldaketan eta hiri-birmoldaketako ekintzen ondorioz libratzen joan daitezkeen espazioetan, batez ere adierazitako trenbidea lurperatzeko proiektua abian jartzen bada.

Parke Nagusi honek uholde-arrisku handiena duten eremuak okupatuko lituzke, aisia eta astialdirako espazio bat eskainiz trafikoko konbentzionaleko zubiek eta oinezkoek eta txirrundulariek erabiltzeko pasabideek lotutako ibaiaren alde bietako garapenak konektatuko dituen gune deskongestionatu batean.

4.3.3. Industria-espazioen berrikuntza eta jarduera ekonomikoen esparru berriak.

Industria handiak Llodioaren garapenean duen garrantzia argi eta garbi antzeman daiteke hiri-bilbean agertzen diren dimentsio handiko nabeetan, udalerrriaren iparraldeko industria-eremuan batik bat. Industria handiko eremu horrek kokaleku pribilegiatua dauka ibaiak, trenbideak eta autobiak bat egiten duten erpinean, Nerbioi ibaiaren haranerako benetako sarrera-atea eratzen dute-eta.

Espazio horretarako epe luzerako jarduna proposatzen da, bi alderditan oinarrituta, hots, bere irudia hobetuz, agerian dauden aurrealdeetan, fatxadetan eta bideen tratamenduetan jardunez, eta hiri-bilbearen gainerakoarekiko konexio-elementuak garatuz. Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzekeko Lurraldearen Arloko Planak ekonomia suspertzeko eta industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen hirigintza leheneratzeko sustapen-eremutzat jotzen du esparru hori. Saillkapen horri esker, epe ertain eta luzera gaur egungo industria-lurzorua berritzeko eragiketarik planteatu daitezke eta, aldi berean, Ardatz Teknopolitarrean zehar proposatzen diren espazio berriak garatu.

Hirigunearekiko kokapen kritikoa duten industria-espazioak berritzeko ekintza posible horiek, alabaina, epe luzera aintzat hartu beharreko ekimenak dira. Etapa hurbilago batean garrantzitsua izan daiteke, indarrean dagoen plangintzak aurreikusitako udalerriko egungo industria-lurzorua finkatu ondoren, espazio horren produkzio-jarduera berrietarako harrera-ahalmena mantentzea ahalbidetuko duen Industrialde berri bat garatzeko erreserba-esparru bat edukitzea. Horretarako esparru egokiena udalerrriaren hego-ekialdean agertzen da, trenbidearen eta A-625 errepidearen saihesbidearen artean dauden lurretan, Santa Kruz eta Katuja eremuen ondoan.

4.3.4. Eskualdeko ekipamenduko eremuak.

Llodioaren hiri-profil berria eskualde-egiturako burutza izateak zehazten du neurri handi batean, Bilbaoko eremu metropolitarran integratutako eskualdeko zentraltasun-polo berria eratzen baitu. Llodioaren zuzkidurak sendotzea hiri-berrikuntzako estrategiaren eta eskualde-mailako edo interes metropolitarrako ekipamenduen harreragune gisako bokazioa indartzeko strategiaren funtsezko alderdia da.

Industria berritzeko ekintzek eta, hala badagokio, trenbidea lurperatzekoek, irisgarritasun handiko zentraltasun-esparru bat garatzeko aukera emango dute tokiko garapeneko etapa berri batean. Esparru hori hirigintza-kalitate handiko espazio gisa diseinatu behar da, osasun-ekipamendu berriak, zibikoak, kulturalak, atsedenekoak eta hezkuntzakoak kokatzeko ezin egokiagoa. Eremu horretan, halaber, eskualde-egitura kudeatzeko eta garatzeko zentro eta erakunde berriak koka daitezke, baita enpresa-ekimen berriak eta zerbitzu pertsonalak eta

produkzio-zerbitzuak hartzeko hirugarren sektoreko eraikinak ere, lekuaren izaera nabarmentzeko alderdi arkitektonikoak eta hirigintzakoak zaindu behar diren ingurune erakargarri horretan.

4.3.5. Atsedeen-eremu berriak.

Erlikeak eta uholde-prozesuek ezarritako murrizketa fisikoak eta garraio-azpiegitura handien kokapena muga garrantzitsuak dira Llodionen hiri-hazkunderako eta horrek eragin nabarmena du gai kritiko batean, hots, Llodion dagoen etxebizitza-defizita murrizteko beharrezkoa den bizitegi-eskaintzaren igoeran. Industria-berrikuntzako eremuen inguruan iradokitako hiri-berrikuntzako eragiketak eta etorkizunean trenbidea lurperatzeak ireki ditzakeen ahalbideak etorkizunean eskaintza hori areagotzeko aukera bikainak izan daitezke. Gaur egungo bizitegi-lurzorua eskaintza areagotzeko aukera batzuk daude, etorkizunean aldapa txikiko esparru batzuk garatuz A-625 errepidearen saihebidetarako sarbidearen hegoaldean dauden bezalako eremuetan. Nolanahi ere den, bizitegi-espazioen eskaintza berri horrek etxebizitza eskuratzeko aukerak dibertsifikatzen lagundu behar du, aukera-aniztasun handiagoa gehituz etxebizitza publikoei eta prezio tasatukoei, alokatzeko eskaintzari eta etxebizitza libreei dagokienez, tipologia ugariatuz (blokea, atxikiak, familiabakar exentua, etab.) eta aukera-sorta zabalagoa eskainiz etxebizitzen tamainei eta ezaugarriei dagokienez, era askotako familia-egituretara egokituz: pertsona bakarreko edo seme-alaba gutxiko familia-kopuru handiagoari zuzenduz, pertsonako azalera handiagoa eskainiz eta profil berriko egitura demografikoa aintzat hartuz.

Bizitegi-erabilera nagusiarekin batera merkataritza-jarduerak eta hirugarren sektorekoak ezartzea komeni da, espazio hori hiri-esparru bizia, dinamikoa eta erakargarria izatea lortu nahi bada.

4.4. **AMURRIO, ESKUALDEKO ZENTRALTASUN BERRIA**

Amurriok industrializazioaren urteetan hazkunde adierazgarria izan zuen arren, ez zen Llodiokoa bezain trinkoa izan. Hiri-narriadura eta erabileren nahasketa ez dira hain arazo larriak kasu honetan. Amurrio hiri-hedapenari oztoporik jartzen ez dion lautada baten erdian dago. Hori dela-eta, bertan ez dugu aurkitzen euskal hirien eredu hiritar tipikoa, erabilgarri dauden kokaleku urrietan kokatzeko erabileren "lehia" hori bereizgarri duena. Ezaugarri fisiko horien ondorioz, Amurrioren hiri-hazkundera naturaltasunez gertatu da bide-ardatzetan zehar. Horren emaitza da hiri-bilbe ez oso definitua, hutsune asko dituen eta horien artean oso tipologia heterogeneoko enklabeak agertzen dira, gunearen nortasuna lausotzen dutenak eta era sakabanatu eta etenean hazteko joera duen habitata konfiguratzeko dutenak.

Dokumentu honetatik Amurriorako eskaintzen diren iradokizunek gune hori eta bere ingurunea aukera-eremu handia bihurtzen duten ezaugarri berezien identifikazioa dute abiapuntu. Amurrio topografia lau samarreko lurralde zabal batean dago kokaturik, Nerbioiko harana eta Aiarako harana elkartzen diren inguruan. Horren ondorioz, Amurrioren garapenerako egokiak diren espazio zabalak daude, eta horrek oso abantaila garrantzitsua ematen dio eskualde-egiturako eta Bilbao inguruko beste esparru batzuen aldean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan adierazten den bezalaxe, Amurrio eta bere ingurua Bilbao Metropolitarrak deskongestionatzeko espazio estrategikoetako bat da, garapen berriak kokatzeko abantaila konparatiboak dituen. Ezaugarri bereizle horri eskualde-egituraren eta Bizkaiko eta Arabako komunikazio-sisteman duen posizio zentrala gehitu behar zaio. Amurrio trenbide-linearen ondoan kokatuta dago, eskualde-egitura ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen eta Vitoria-Gasteizekin komunikatzen duen A-624 errepidearen eta Nerbioiko Ardatzaren arteko elkargunean. Irisgarritasun handiko nodoa da, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hirigune handietako bitatik hurbil dagoena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien trafikorako kanpo-konexioko bi azpiegitura handiekiko bitarteko posizioan eta horiekin ongi komunikatuta, Bilbaoko portuarekin eta Forondako aireportuarekin hain zuzen ere.

Abantaila horiek guztiak eraginkortasunez aprobetxatzea datza Amurrio lurraldeko jardueranodo berri gisa proposatzearen erronka. Bere hazkundera eta produkzio-jarduera berriak hartzeko ahalmena aukera ezin hobekoa dira eskualde-egitura osoa garatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoa eskualde-hiriaren egitura integraturantz transformatzeko prozesurako.

4.4.1. Lorategi-hiria.

Amurrioko hirigunearen hazkundera oso desordenatuta gauzatu da, bide-ardatzei lotutako mikroenklabe deskonektatuen eta egiturarik gabeen moduan. Ia ez dago hiri-bilberik, ezta guneen arteko erlaziorik ere, errepideetatik zintzilik dauden garapen espontaneoak baizik, hiri-orbana artifizialki hedatzen duten hutsune handiz inguratuta.

Lorategi-hiria hiri finkapen eta integratioko proposamena da, sakabanatuta dauden kokaguneei koherentzia emango dien eta hiriaren nortasun-eremu nagusiarekin eraginkortasunez konektatuko dituen dentsitate ertaineko hazkunde-eredua ezarriko duena. Lorategi-hiriaren proposamena garapen desberdinak antolatu eta berriak identifikatuko dituzten bideak eta etxadiak definitzean, trafiko-mota desberdinak antolatzean, garraio publikoko sistema bigunak hartzeko ahalmena duten oinezkoen eta txirindularien bideei lehentasuna emanez, eta espazio libre interstizialak berdegune publiko eta erdipubliko gisa finkatzean oinarritzen da. Espazioaren aprobetxamendu eraginkorra lortu nahi da, lehentasunez etxebizitza familiarbarruko eta atxikitako tipologiak edo gehienez ere lau oineko etxebizitza-blokeak erabiliz bizitegi-ahalmena areagotzeko aukera emango duena.

Espazio horren bazterreko bideak zuhaitz-dentsitate handiko parke-bide gisa planteatzen dira, hedapen barreiatuko joerak akotatu dituen mugako erreferentzia eskainiz hiri-hedapenerako, barnean hiri-espazio bereizgarria definituz.

Estrategia horretan funtsezkoa da tren-geltokiaren zentraltasuna mantentzea, Amurriko Nerbioiko Ardatzean txertatzea eta Bilbao Metropolitarrako zuzkidurekin eta jarduerekin konektatzea ahalbidetuko duen garraio kolektiboaren trukatzailer handia izango baita. Amurrioko erdialdeko eremua artikulatzeko eragiketen esparruan, geltokia bere inguruan tokiko eta udalaz gaindiko mailako ekipamenduak antolatzeke zentraltasun-esparru berri gisa konfiguratu ahal izateko espazioak erreserbatzea, errepideko garraio publikoko sistemekiko trukaguneak eta aparkalekuak sortzea eta ibilbide bigunen sarearekiko loturak sortzea proposatzen da.

4.4.2. Industria-parkeak.

Udalerraren iparraldeko eta hegoaldeko industria-ezarpen handien inguruan jarduera-instalazio berriak hartzeko aukera emango duen eta enpresa-garapenerako prozesuetan erabili ahal izango den lurzoru-erreserba eskainiko duen industria-espazio handi bat finkatzea proposatzen da.

Oso garrantzitsua da espazio horrek inguru horretan garatu ohi diren industria-poligono konbentzionalek izaten ez dituzten balio erantsiko elementuak izatea. Instalazioak paisaia integratzea eta baliabideen kontsumoari eta hondakinen tratamenduari lotutako ingurumena kudeatzeko sistema enpresen lehiakortasunerako gero eta garrantzi handiagoa duten faktoreak dira. Hainbat enpresak batera erabili eta finantza ditzaketen hirugarren sektoreko jardueren zuzkidura eta produkzioarako zerbitzuetarako espazioak edukitzeko aukera oso faktore garrantzitsua da enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko eta industria-instalazio berriak kokatzeko jarduera-eremu honen erakargarritasuna areagotzeko.

4.4.3. Enpresa Etxeak.

Jarduera ekonomiko berriei protagonismo handiagoa emateko ahalmena duen esparru bat garatzea proposatzen da. Enpresa Etxeak izeneko eremua hainbat jarduera hartzera zuzendutako espazio gisa planteatzen da: enpresa-ekimen berriak, zerbitzu-jarduerak, ekintzaileentzako espazio egokien eskaintza, jarduera berritzaileak eta hasierako garapenerako proiektuak. Horrez gain, produkzio-jarduera berrien sorrera bultzatzen dezaketen hezkuntza-jarduerak eta jardura zibikoak, lanbide prestakuntzako eta birziklatzeko ekipamenduak bizitegi-erabilera ere onartzen duen eremu honetan koka daitezke. Gaur egungo plangintzak Nerbioi ibaiaren ondoan egungo gunearen ekialderantzko edo ipar-ekialderantzko hazkunde gisa proposatzen dituen hazkunde-esparru berrietako batzuetan koka liteke espazio hori.

Enpresa Etxeak eremua hirigintza-kalitate handiko esparru gisa pentsatu da eta, hala, espazio publiko arras zainduak izango ditu, dentsitate txikiak eta tipologia familiarak eta altuera gutxi eraikin bereziak, eta Nerbioiko Parke Linealarekin oso integratuta egongo da. Ardatz Teknopolitarrean jarduera ekonomiko berriak erakartzeko eta bultzatzeko, produkzio-dibertsifikazioa ahalbidetzeko eta tokiko enpresa-ekimenei sostengua emateko espazio erakargarria sortzea da helburua.

4.4.4. Merkataritza elektronikoaren parkea.

Amurriko nodoaren irisgarritasun-baldintzek eta harrera-ahalmenak etorkizuneko aukera bikaina planteatzen dute esparru honetarako. Amurriko nodoan, baina Aiarako udalerraren barruan, merkataritza elektroniko berrirako kudeaketa-eragiketetan espezializatutako jarduera-parke bat garatzeko ideia iradokitzen da, kontsumo-zentro handietarantzko banaketara bideratua.

Sektore hori hazkunde-potentzial ikaragarria duen jardura da, Internet bidezko urruneko merkataritzako era berrien hedapenari lotua. Izan ere, gero eta neurri handiagoan eskatuko dituzte beren jarduerak antolatzeke berriaz pentsatutako espazioak kontsumo-zentro handietatik hurbil dauden lekuetan. Amurrioren Bilbaorekiko posizioa, errepide eta trenbidetik irisgarritasuna, gaur egun dituen telekomunikazio-azpiegitura bikainak eta azalera handiak eskatzen dituzten jardura-espazio berriak hartzeko ahalmena oso abantaila bereziak dira

maila teknologiko handia eta ingurumen-inpaktu txikia bereizgarri dituzten jarduerak erakartzeko.

Merkataritza Elektronikoaren Parke hau Amurrio eta Aiarako udalerrien iparraldeko elkargunean planteatzen da, Murgako poligonoa handitzeko esparruan. Jarduera-edukitzaille handiak hartzeko gauza diren eta salgaiak mugitzeko eta garraiatzeko jarduerak eraginkortasunez garatzeko ahalmena duten oso tamaina handiko lursailen bitartez antolatu behar den espazioa da. Horretarako, esparru hau berriazko trenbide-adar batez hornitzea proposatzen da.

Amurrio-Aiara esparruko eskualde-mailako poligono berri horretarako planaren indarraldian premiei erantzuteko 25 eta 50 hektarea arteko azalera ezartzen da, sekuentzialki garatuz gaur egungo Murgako poligonoaren jarduerekin eta garapenarekin bateragarri.

4.5

URDUÑA-ORDUÑAKO HIRI EKOLOGIKOA

Urduña-Orduñak bere gune historiko bereziaren hiri-erakargarritasun handia eta Gibijo mendigunearen eta Garobel mendigunearen azpialdeko ingurunearen ingurumen-balio handia konbinatzen ditu. Urduña-Orduña anfiteatro natural baten sarreran dago eta interes handiko landaguneak ditu lautada zabal baten ertzetan, oso espazio berezia konfiguraturaz, errepidez eta trenbidez iristeko erraztasun handiak eta jardueretarako eta bizitegirako aukera ugari dituena. Multzorretan lurralde-eskaintzaren kalitatea nagusitzen da.

Ezaugarri horien guztien ondorioz, Urduña-Orduñako nodoa kalitate handiko bizitegi-eskaintza zabala egiteko baldintza ezin hobekak dituen esparrua da, eskualde-egituraren eta eremu metropolitarraren lurralde-berronakarako elementu bihurtuko dena. Horrez gain, espazio honek abagune berezia eskaintzen du ingurune fisikoaren eta ondare eraikiaren aukeretan oinarritutako turismo-eskaintza zabala diseinatzeko.

Ekimen horiek bereizi eta arrakasta izan dezaten, lurraldearen ingurumen-kalitatea zaintzea da argudio bereizgarria. Urduña-Orduñako nodoa ingurumena kudeatzeko teknologiak eta sistemak aplikatzeko Euskal Autonomia Erkidego osorako erreferentziako zentro bihurtzea proposatzen da, espazio hiritarrak eta turistikoak lortzeko aukerak badaudela eta natura-ingurunea ingurumen-inpakturik eragin gabe erabil daitekeela frogatzeko. Ekimen horrek honako elementu hauek txertatu beharko lituzke pixkanaka:

- Sortzen diren hondakinak murriztea (akordioak fabrikatzaileekin eta merkatariekin; herritarren parte-hartzea...).
- Hiri-hondakin solido guztien gaikako bilketa, tratamendua eta berrerabilera.
- Ur-eskaria kudeatzeko sistemak (sareak kontrolatzea, erabilera-sistemak, efluentek erabilera-mailen arabera bereiztea...).
- Ur zikinak berrerabiltzeko eta integratuta tratatzeko programak. Arazketa-azpiegitura bigunak garatzea (iragazki berdeak, urmaeleratzea, zohikatz-oheak).
- Eraikuntzak eta espazio publikoak arkitektura bioklimatikoaren irizpideekin diseinatzea.
- Etxeko erabileretarako, erabilera publiko eta produktiboetarako energia berriztagarriak erabiltzea (eguzki-energia, eolikoa, biomasa).
- Energia-eraginkortasuneko programak.
- Poluitzen ez duten ibilgailuak eta garraio-sistemak erabiltzea.
- Ingurumen-eragin txikiena duten bizimoduak eta jarduerak erraztera zuzendutako hirigintza-ereduak.
- Giza jardueren autoarazketa eta ingurumen-integrazioa eta espezie basatiak berriz sartzeari ahalbidetuko duten formazio naturalak eta sistema biologikoak zabaltzea.
- Tokiko ingurumena kudeatzeko sistema.

“Urduña-Orduñako Hiri Ekologikorako” honako osagai hauek iradokitzen dira:

4.5.1. Gune tradizionala.

Urduña-Orduñako gune historikoa hirigintza-balio apartekoa duen espazioa da. Bere ezaugarriek esker, leku aproposa da oso eskari handia duten eraikuntza tradizionaletan bizitegi-erabilerak hartzeko, baita merkataritza-jarduerak eta goi-mailako turismo eta aisiako ekipamenduak hartzeko ere.

Helburu horiek lortzeko arreta handiz jokatu behar da morfologia tradizionala mantentzen eta gunearen irudian erabat integratutako tipologia erabiltzen. Batez ere, ezinbestekoa da gune historikoa bizitegirako eta jardueretarako espazio gisa erabiltzea erakargarri bihurtuko duten baldintzak sortzea. Horretarako ezabatu egin behar dira ondare-aktiboen babes museistokora bideratutako lege-oztopoak, gunea narriatzea besterik ez baitute ekartzen, etxebizitzak birgaitzeko eragiketak eta eraikinak berrerabiltzekoak eragozten dituzte-eta. Horren ondorioz

gunea bertan behera geratzen ari da, gaur egun oso handia baita gutxieneko bizigarritasun-baldintzak bete ezin dituzten bizitegi-eraikuntzen portzentajea.

Urduña-Orduñak ekosistema minipolitarra deritzonaren turismo-garapena zuzenduko duen gunea izateko bokazioa dauka, tamaina eta konplexutasun handieneko zuzkidurak eta ekipamenduak inkorporatuz eskualde-egitura osoko turismo-garapenaren zerbitzura. Gune historikoko eraikin garrantzitsuek oso potentzial handia dute hotel eta bizitegi ostatuko eskaintza handia, jatetxe-zerbitzuak, aisia-enpresak, merkataritza eta abar hartzeko, eta hori ezinbestekoa da natura-ingurunearen eta landa-espazioen erakargarritasunean oinarritutako turismo-eskaintza indartzeko. Zuzkidura horiek, gainera, herriak eta bere inguruneak bizitegi iraunkor gisa eta jarduera ekonomiko berriak sortzeko gune gisa duen erakargarritasuna areagotu egiten dute.

Ildo horretan, trenbidea funtsezko azpiegitura da, Nerbioiko Ardatzaren gainerakorako eta Bilbao Metropolitarrerako zuzeneko sarbidea ematen baitio Urduña-Orduñari. Oso garrantzitsua da erdiko gunearen eta geltokiaren arteko konexioak hobetzea eta geltokia lurralderako benetako sarreragune bihurtzea, proposatzen diren ibilbide bigunekiko konexioekin eta lurraldearen turismo-aukerei buruzko orientazio-elementuekin.

4.5.2. Komunikazioen garrantzi estrategikoa.

Urduña-Orduña Bilbao Metropolitarretik urrutien dagoen Ardatz Teknopolitarraren muturrean kokatuta egotea da epe laburrean hiria eta ekonomia behar adina suspertzea lortzeko oztopo nagusia.

Biztanleria oso kalitate handiko bizitegi eta ingurumen eskaintza bati loturik erakartzea, industrian eta zerbitzuetan enpresa-jarduera berriak garatzea, lehen sektorerako garapen-etapa berri bat hastea eta turismo eta atseden jarduerak benetan indartzea bezalako funtsezko estrategiek ezinbestekoa dute komunikazioak hobetzea, gunea pixkanaka hustu ez dadin eta, horren ondorioz, bere etorkizuneko aukerak ezerezean gera ez daitezten.

Horiek horrela, aldiriko zerbitzuen eskaintza areagotzea, tren-maiztasuna handituz eta Bilbaorainoko bidaia-denborak murriztuz, eta A-625 errepidea hobetzeko ekintzak ahalik eta lasterren garatzea, Amurrioko saihebidetaren itxiera eta Saratxoko saihebidetara egitea batik bat, nahitaezko eta ezinbesteko baldintzak dira Urduña-Orduñaren etorkizunerako eta Lurraldearen Zatik Planetik udalerrri horretarako egiten diren proposamenetarako.

4.5.3. Industria-garapenak.

Urduña-Orduñak nolabaiteko industria-oinarria du, datozen urteotan hazteko aukerak dituen, Ardatz osoaren dinamismoa handitu eta Bilbaoko eremu metropolitarrarekiko errepide eta trenbideko konexioak hobetu ahala.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-erreserba garrantzitsua dago udalerrriaren hegoaldean, oso ongi kokatua, trenbidetik hurbil baitago eta ez baitu ia interferentziarik sortzen erdiko hiri-espazioan. Etorkizunean behar izan litezkeen zabalkuntzak esparru horretan bertan egitea iradokitzen da, BI-2625 errepiderantz haziz eta herriaren gune historikorantz bideratutako garapenak saihestuz.

4.5.4. Korridore berdeak.

Urduña-Orduñako inguruetan kokatzen diren aisia-jardueretarako guneak eta espazioak korridore berdeen eskema erradial baten bitartez konektatzen dira elkarrekin eta erdiko gunearekin. Elementu lineal naturaletan, batez ere Nerbioi ibaian elkartzen den ibai-sarean, oinarritzen den bide-sistema da, elementu interesgarrietarako sarbidea ematen duena ingurumen eta paisaiaren alderdiak oso zainduta dituzten ibilbideen bitartez: zuhaitz-lerrokadurak dira trazadura definitzen duten elementu nagusiak eta bereziki egokituta daude oinezkoen eta txirrindularien erabilerari trafiko motorizatuaren gaineko lehentasuna emateko.

4.5.5. Landa-eraztuna.

Lautadaren kanpoaldeko ertzean, anfiteatro natural hori mugatzen duten aldapa eta malkarren oinaldean, Urduña-Orduña eta Amurrioko udalerrietako landagune txikiak agertzen dira han-hemenka: Tertanga, Paul, Zamarro, Delika, Artomaña eta Aloria.

Gune tradizional horiek aparteko paisaia eta ingurumen balioa duen esparru batean kokatzen dira, inguruneke natura-espazioekiko posizio estrategikoa betez. Landa-bide eta errepedeen sare erakargarri batek elkarrekin konektatzen dituela, landa-eraztun guztiz erakargarria osatzen dute eta bizitegi iraunkorreko, bigarren etxebizitzako eta turismo-ostatuako espazio bikainak dira, baita harreragune gisa eta aisia aktiboko eta naturarekin harremanetan atseden hartzeko jarduerak garatzeko zerbitzugune gisa erabiltzeko ere.

Natura-esparruetan eta guneen arteko espazio libreetan baldintza ezin hobeak biltzen dira aire zabaleko kirol-jardueretan espezializatutako eskaintza tematiko zabala garatzeko: golfa, piraguismoa, parapentea, txirindularitza, hipika-jarduerak, mendizaletasuna eta mendi-ibiliak. Proposamen berezi eta erakargarria diseinatzeko aukera ematen dute.

Landa-eraztuneko guneen hazkundea indartzea proposatzen da, betiere kokagune tradizionalak babesteko, garapen berrien koherentzia morfologikoa gordetzeko eta natura-eszenografian integratzeko irizpideei jarraiki.

4.5.6. Baso-parkea.

Urduña-Orduñako haranaren erdialdeko lautada zabala gaur egun nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerek okupatzen dute gehienbat. Komenigarria izango litzateke jarduera horiek mantentzea, paisaia tradizionala mantentzea ahalbidetzen duten erabilerak finkatzen dituzte-eta. Alabaina, jarduera horiek atzerapen garrantzitsua jasaten ari dira, segur aski hurrengo urteetan areagotu egingo dena. Horrenbestez, lurrek erabilerarik eta kontrolik ez dutenez, gero eta arrisku handiagoa dago potentzial ikaragarria duen espazio horretan paisaia eta ekologia narriatzeko eta komeni ez diren erabilerak agertzeko.

Narriadura-prozesu hori saihesteko eta gaur egun dauden aukerak aprobetxatzeko, erabilera berriak sartzeko programa bat garatzea proposatzen da, Urduña-Orduñako haranaren izaera indartzeko, hots, ingurumen-kalitateko eta aisia-eskaintzako esparru enblematikoarena.

Nekazaritza-erabilerei nekazaritza ekologikoko aprobetxamenduak, aisia-baratzeak, bertako landareak produzitzeko mintegiak, baserri-eskolak eta abar gehitzea espazio horretan erabilera-aniztasun egokia mantentzea ziurta dezaketen orientabide posibleak dira. Jarduera tradizionalak mantendu ezin direnean edo beste jarduera berri batzuk garatzerik ez dagoenean, zuhaitziak hedatzeak izan behar du irizpidea, mantentze-premia gutxiko baso-parke handi bat sor dadin pixkanaka, paseatzeko, txangoak egiteko eta naturaz gozatzeko erabilera estentsibo gutxi formalizatua hartzera bideratua. Estrategia hori funtsezkotzat planteatzen da baso-intereseko eremu gisa proposatutako esparruetan.

Baso-parke horrek, gainera, Ardatz Teknopolitarreko birika berde handia izan behar du, lurraldearen biomasa eta biodibertsitatea areagotuz, Ardatz osoko emisio atmosferikoen balantzea orekatuz eta animalia-espezie basatiak berriz sartzeko habitat berria osatuz.

4.5.7. Hiri lineala.

Haranerako sarbidean zehar hiri lineala garatzen da. Urduña-Orduñako bizitegi-hazkundearen zatirik handiena hartu behar duen pieza da. Ordezko habitat gisa planteatzen da eta irisgarritasun handia (zuzeneko sarbidea du trenbidera eta errepede lasterrera), berehala goza daitekeen natura-ingurune zeharo erakargarrian integratuta egotea eta eraikitako espazioen kalitatea ditu bereizgarri.

Lorategiz hornitutako eremuak eraikitako eremuei nagusitzea, natura-inguruneak eremu urbanizatua inguratzen duela ematen baitu, eta eraikuntzen altuerak mugatzea, ingurune errepikaezinean dagoen espazio honi izaera berezia emateko irizpideak izan daitezke. Nolanahi

ere den, epe luzerako iradokizuna da, Ardatzean zeharreko bizitegi-eskaintza areagotzeko aukera ematen duena, Urduña-Orduñaren hiri-dimentsioa handituz gune historikoaren izaeran eraginik izan gabe.

5. EKOSISTEMA MINIPOLITARRAK

Nerbioiko Ardatzaren alde bietan lurralde nabarmenki landatarra agertzen da, populatze sakabanatua, lehen sektoreko jardueren nagusitasuna eta bere paisaiaren, herriguneen, ondarearen eta natura-espazioen erakargarritasun handia bereizgarri dituena. Industria-hazkundearen urteetan zehar biztanleria etengabe galdu duen eremua da, baina gaur egun balio berria bereganatzen du, eskualde-egiturarentzat eta Bilbao Metropolitarrarentzat sekulako garrantzia duen lurralde-aktibo bihurtu baita. Dentsitate txikiko lurraldea da, turismo-jardueretarako eta naturarekiko harremanetako aisiarako potentzial ikaragarria duena, bizikalitate handiko bizitegi-esparru erakargarria eta, aldi berean, eremu metropolitarrako dentsitate handiko inguruetatik erraz iristeko moduan eta hurbil dagoena. Horri esker oso lurralde-eskaintza berezia eta berezia egin daiteke. Gune tradizional txiki ugariak paisaian oso integratuta dauden eta ondare-aberastasun handia duten era askotako kokaguneak eskaintzen dituzte. Espazio honen transformazio funtzionalean aukera handiak daude, bere balioak eta berezitasunak aprobetxatuta, biztanle eta jarduera berriak hartzeko. Horretarako baldintza beharrezkoa esparru honetan garatuko diren ekintzak lurraldearen izaerarekin integratuta eta koherentziaz gauzatzea da, bere potentzial handiena gordetzen duten balio bereziak zaindu eta babestuz, eduki berriek lehendik dagoena indartu eta hobeto dezaten, hala gaur egun dagoena berriaz nola elementu berriak sartzetik sortuko den lurralde-berrikuntzako eragiketa batean.

Lurralde-ereduak landa-espazio horiek biziberritzea planteatzen du, lehen eta bigarren etxebizitzako bizitegi-erabilerak har ditzaten, teknologia berriei lotutako lantokiak bezala eta turismo-eskaintza garrantzitsua garatzeko oinarri bezala. Kasu honetan proposamena hazkunde funtzionalekoa da hazkunde fisikokoa baino gehiago. Estrategia horrek batez ere bertan behera utzita dauden etxebizitza ugariak birgaitzearen eta ondare historiko-artistiko benetan ugaria eta herri horietako arkitektura tradizionala berrerabiltzearen alde egiten du, bere erakargarritasun nagusietakoa da-eta. Nolanahi ere den, gune horiek izan lezaketen hazkundera beren tamainak mugatuko du, kokagunearen eskala beti gorde beharko baita, eta edozein garapen jatorrizko gunearekin korrespondentzia estruktural eta tipologiko zorrotza gordez planteatu beharko da.

5.1. BETIKO HERRIAK

Ekosistema minipolitarreko guneetako batzuek lehen etxebizitzaren eskaintza egin dezakete, eta horretarako eskari garrantzitsua dago. Gune tradizionaletako etxebizitza da Erakunde Parte-hartzerako Prozesuan parte hartzen dutenek nahiago duten bizitegi-aukera. Eskaintza berezi eta erakargarri horrek onarpen handia izan dezake Bilbaoko eremu metropolitarran bizi direnen artean. Bizitegi-aukera hori oso interesgarria izan daiteke telelangileen ezarpena indartzeko.

Landa-eremu horietako biztanle iraunkorretako asko eta asko bigarren bizitegiak lehen etxebizitza bihurtzeko transformaziotik sor daitezke. Eskualde-egituraren ingurumen-erakargarritasuna eta Bilbaorekiko hurbiltasuna gorabehera, bigarren bizitegia eskualde-egituran presentzia urri samarra duen jarduera da. Bigarren etxebizitzari dagozkion portzentajeak Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren oso antzekoak dira, Artziniegan izan ezik, hor bizitegi-garapen horrek askoz ere pisu handiagoa du-eta.

Bigarren bizitegia interes handirik ez duen aukera da landagune txikietan, horren presentziak interferentziak sortzen baititu jarduera ekonomiko tradizionala eta guneen tamaina txikiak eragotzi egiten baitu jarduera horrek ondasun eta zerbitzuen eskariaren bitartez baliabide ekonomikoak sortzea. "Betiko Herriak" ekimena bestela bertan behera geratuko liratekeen eta pixkanaka narriatu egingo liratekeen eraikuntza tradizionalak mantentzean oinarritzen da eta Okondon, Orozkon eta Aiarako gune txikietan bultzatuko da.

Lurralde-ereduan eragiteko ahalmen eta potentzial handiagoa du bigarren etxebizitza tamaina jakin bateko guneetan garatzeak, merkataritza eta zerbitzuen eskaintza zabalagoa egin baitezakete, aldi baterako bizitegiak pixkanaka etxebizitza nagusi bihurtzea errazten duten baldintza erakargarriak eskainiz. Prozesu hori adierazgarria izaten ari dela antzematen hasi da eskualde-egituran.

Bigarren bizitegia garatzea, horrenbestez, aukera aproposa da ingurumen eta hiri arloko kalitate handia, irisgarritasun-baldintza onak eta hirugarren sektoreko eskaintza egokia duten udal-burutzetarako. Aukera hori lurraldea berrorekatzeko irizpideekin planteatzen da eta bizitegi iraunkor gisa finkatzea da epe ertainerako helburua.

Lehen etxebizitzara edo etxebizitza nagusi bihurtzera bideratutako bigarren bizitegira zuzendutako bizitegi-garapeneko estrategia horretarako Artziniega, Okondo eta Orozko agertzen dira lehentasunezko gune gisa. Horrez gain, beren bizitegi-erakargarritasuna areagotzeko zuzkidurak eta hirugarren sektorea indartu beharra duten Aiarako udalerriko dimentsio handiagoko guneak ere planteatzen dira, Artziniega – Amurrio ardatzean zehar kokatutakoak (Murga, Arespalditza, Menagarai-Beotegi).

Dela lehen etxebizitzara dela bigarreneira zuzendua, funtsezkoa da herri horietan gertatzen diren hazkundeak gaur egungo guneen ezaugarri morfologiko eta estrukturala oso integratuta gauzatea, behar adinako kalitateko hirigintza eta arkitektura tipologiak erabiliz aldi baterako etxebizitzatik etxebizitza iraunkorrera igarotzea benetan erakargarria izan dadin.

Eskaintza horiek proiektu eta sustapeneko prozesu bakar baten bitartez mamitu beharko lirateke, gunearen morfologia eta egitura tradizionalarekin integratzea erreferentziatzen hartuko duen diseinu-kalitate handiarekin.

Horretarako iradokitzen diren ekintza-ildoak honako puntu hauetan laburbil daitezke:

- Komunikazio-azpiegiturak hobetzea, landaguneen irisgarritasuna areagotuz eta horien arteko joan-etorriak eta hiri-sistemaren elementu nagusiekiko konexioa ahalbidetuz.
- Landaguneetako ekipamenduak eta zuzkidurak hobetzea, barietatea areagotuz eta, batez ere, zerbitzu-mailak igoz kalitateko eskaintza egin ahal izateko, herritarren

beharrei egokitua eta gune hauek bizitegi eta jardueretarako gune gisa duten erakargarritasuna areagotzeko ahalmenarekin.

- Telekomunikazio-azpiegiturak indartzea, jarduera berriak sortzeko eta hirigune nagusietatik urrun samar egotearen ondorio diren eragozpenak murrizteko funtsezko faktorea baita.

- Guneen irudian, kalitateko bizitegi-eskaintzan, natura eta ondarearen erakargarritasunak balioztatzen eta esparru bakoitzaren premietara egokitutako jarduera-espazioak prestatzean eragina izango duten hiri-hobekuntzako ekintzak, gaur egun dauden garapen-aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzea lortu ahal izateko.

5.2

TURISMOA GARATZEKO PROGRAMAK

Parte hartzeko prozesuan eskualde-egituraren etorkizuneko garapenerako lehentasunezko zatitza jotzen diren jarduerak ekonomikoetako bat da turismoa. Urduña-Orduña eta Aiara eta Orozkoko guneak dira jarduerak horretarako potentzial handiena duten eremuak eta bertan kokatu behar dira, lehentasunez, lurraldean ageri diren ingurumen eta ondare balioak aprobetxatuko dituen landa-turismoa garatzeari lotutako azpiegiturak eta ekipamenduak.

Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-portaeraren azterketa zehatzari esker antzeman daiteke jarduerak horren modalitate desberdinak garatzen hasi berriak direla, baina hastapenetan daude oraindik. Hortaz, eskaintzaren dimentsiorik eza eta oinarritzko ostatu-euskarririk ez izatea dira merkatuan posizionatzeko zailtasun nagusiak.

Turismoak Aiara eskualde-egituran egin behar duen jauzi kualitatibo nagusia bere produktua antolatzean datza. Helburu nagusia lurralde hau barneko turismoaren teknologiaren abangoardian kokatuko duen garapen-eredua planteatzea da, honako irizpide hauen arabera bideratutako ekintza-plan baten bitartez:

- Natura-espazioak mantentzea eta kontserbatzea. Natura espazio eta baliabideen turismo-erabilera ez du ondorio negatiborik izan behar beren kontserbazioan, ezinbestekoa baita turismo-baliabide izaten jarraituko dutela bermatzeko.
- Ondare eraikiaren lehentasunezko erabilera. Gaur egun okupatu gabe dagoen ondare eraikiaren lehentasunezko erabilera minimizatu egiten ditu turismo-ostatu-plazak sortzeko beharrezkoak diren ingurumen, hirigintza eta finantza arloko kostuak. Bestalde, bizitasuna ematen die lehendik zeuden hiri-bilbee eta turismo-jarduerak sortzen dituen mozkinak herritarren artean hobeto banatzea ahalbidetzen du. Okupatu gabe dauden etxebizitzak eskaintza (Llodio eta Amurrio kenduta) 12.800 plaza ingurukoa dela kalkulatu da.
- Herritarren protagonismoa. Turismo-eredu baten eraikuntzak bertako biztanleek prozesu osoan duten protagonismoa aintzat hartu beharko du bere printzipio eragile utziezinen artean. Horretarako, turismo-ekintza eskualde-egiturako familiek finantzatu eta kudeatzeko moduko tamaina txikiko instalazioetan oinarritu beharko da, kanpoko inbertsio handietan oinarritu beharrean.
- Biztanleen ostalaritza-potentziala aprobetxatzea. Jarduera-unitate txikietan oinarritutako garapen-ereduak euskal biztanleriak ostalaritza-jarduerak garatzeko dituen aparteko kalitateak aprobetxatzeko aukera ematen du. Baina potentzial garrantzitsu horrek behar-beharrezkoa du bezeroen behar, eskakizun eta aukerei egokitutako prestakuntza-sistema, modu ziklikoan eta pixkanaka irakatsi beharrekoa.
- Osatuaren funtsezko izaera eskaintzaren konfigurazioan. Ostatu da turismo-sistema osotasunean konfiguratzeko elementurik funtsezkoena. Merkatuko presentzia neurri handi batean dago bere dimentsio kuantitatiboaren, dinamismoaren, tipologia nagusiaren eta eskari-merkatuetan esku hartzeko ahalmenaren mende. Horrek guztiak eragina du urtaroko portaeran.
- Eskaintzaren aniztasun tipologikoa estimulatzea. Aniztasun tipologikoa funtsezko helburutzat jo behar da. Ostatu-ekintzak hirigune ez-industrialetan okupatu gabe dauden etxebizitzak berreskuratzean oinarritu behar du (lehenik Orozko eta Urduña-Orduña, eta ondoren Aiara, Artziniega eta Okondo), kokagune sakabanatuetan tarteka sortuko diren eskaintza berezien sarearekin batera. Sistema hori tamaina aldakorreko kanpinen sistema batekin osatzen da. Baserriak instalazio berezietarako oinarri bikaina dira.
- Eskualde-egitura euskal eskaintza osorako plataforma gisa. Bilbaorekiko, kostaldearekiko eta Bizkaiko eta Arabako beste espazio interesgarri batzuekiko kokapen geografiko bikainaren eta bere komunikazio onen ondorioz, Aiara eskualde-egiturak eskaintza osagarrien masa handi baterako sarbide bizkorra ematen duen prezio eskuragarriko bizitegi-plataforma gisa jardun dezake, joan-etorriak kasu gehienetan ordu erditik beharrezkoak izaten direla kontuan hartuta. Turismo-informazioak aukera horri buruzko aski informazio eman beharko die turistei.

- Turismo-jardueren monitorizazioa azpimarratzea. Aisia-jarduerak monitorizatzea (mendiko ibilbideak barne) eta familia-taldeetarantz bideratzea eskaintza berezi eta kualifika dezakeen faktorea da, lehian dauden gainerako espazioen eskaintzatik bereiz dezakeena, zeren jarduera asko egiteko aukera, kirol-jarduerak batik bat, aldez aurreko kudeaketari loturik egoten baita eta, salbuespenetan izan ezik, ez da horrelakorik izaten.
- Eskaintza gastronomikoaren kalitatea nabarmentzea. Gaur egungo eskaintza gastronomikoa zabala, askotarikoa eta kalitatekoa da, baina badaude hobe daitezkeen alderdiak: turismorantz bideratu behar litzateke (prezio eskuragarriko dastatzeko menuak prestatzea eta pintxotan eta basoerditan ibiltzeko gida egitea) eta, aldi berean, bertako produktuak proiektatzea komeniko litzateke, Amurrioko Gastronomía Museoari lotuz, horrela bizitasun eta eraginkortasun handiagoa hartuko luke-eta.

5.2.1. Turismo-eskaintzaren nodoak.

Eskualdeko ekonomian eragina izateko eta merkatuan posizionatzeko ahalmena duen turismo-produktu bat garatzeko behar-beharrezkoa da horretarako beharrezkoak diren dimentsio eta konplexutasuneko ostatu eta hirugarren sektoreko zerbitzuen eskaintza sostengatzea ahalbidetuko duen hiri-oinarri sendoa izatea. Llodio eta Amurrio, eskualdeko zerbitzuen gune eta hirigune nagusiak diren heinean, eginkizun aktiboa bete behar dute estrategia horretan, beren konplexutasunagatik errentagarri egiteko bertako biztanleek etengabe erabiltzea eskatzen duten eskaintza bereziak hartuz (zinemak, kalitateko jatetxeak, kirol-instalazio konplexuak, etab.), aldi berean balio erantsi garrantzitsua izan baitaitezke eskualde-egiturako turismo-proposamenerako.

Turismo-estrategia bereziaren barruan, Orozko eta Urduña-Orduña konfiguratzeko dira funtzio espezializatuak garatzeko ahalmena duten bi biztanleguneak bezala, beren eragin-esparruetan turismo-jardueretarako erreferentziako hiri-polo gisa eta eskaintza intentsiboago baten harreragune gisa jardunez.

Kalitate eszeniko eta paisajistiko nabarmena duten hiriguneak dira eta, balio horiengatik eta biltzen diren beste batzuegatik, bereziki egokiak dira turismo-fluxuak hartzeko, bertan dauden etxebizitza okupatu gabeak ostatu-euskarri gisa erabiliz edo, aukeran, eskaintza areagotuz. Ostatu-tipologia nagusia landa-etxeak diren arren, gune horiek beste tipologia batzuk ere onartzen dituzte, hala nola egoitzak, hotelak eta kanpinak. Hezkuntza, mendizaletasuna, ekoturismoa eta kirola bezalako gaien inguruan berezi behar da beren eskaintza.

Eskaintza hori bultzatzeko hainbat ekimen planteatzen dira, eskaintza osagarria indartzera zuzendutakoak. Horietako batzuk dagoeneko aipatu ditugu Urduña-Orduñako nodorako proposamenak adierazi ditugunean.

Urduña-Orduñan lehentasunez kirola egitea sustatzera zuzendutako kanpin tematiko bat garatzea iradokitzen da, hainbat instalazio antolatuz kirolak funtsezko bi alderdi azpimarratuz egitea ahalbidetzeko: alde batetik, hezkuntza-alderdia, haurrentzako ikastaroak garatuko dituen monitore-taldea prestatuz. Kanpinari erantsitako instalazio gisa kalitate handiko kirol-konplexua, ostatu-multzoa (haurrentzako egoitza bat barne, etorkizuneko zabalkuntza posibleetarako modula daitekeena) eta zerbitzu-instalazioak sortzea proposatzen da, bereziki azpimarratuz merkataritza, ostalaritza eta jolas eskaintzak.

Orozkon ostatu-eskaintzak gehitzea proposatzen da, lehentasunez kalitate handiko kanpin bat, eta oporretan dauden familia-taldeein zuzendutako lur eta kirol-ekipamendu berriak eskaintzea, errotazio handiarekin. Ingurune fisikoaren antropizazio handiak zilegi egiten du ostatu-eskaintza bereziak eraikitzea, turismo-produktua finkatu ahala hazi daitezkeen tamaina modulagarriko ostatuak sartuz. Osagarri gisa, landaguneen tamaina txikiaren ondorioz hirugarren sektoreko oinarriko eskaintzari nekez har dezaketenez gero, behar-beharrezkoa da hiri-dimentsio jakin bateko herriak izatea, batik bat Ardatz Teknopolitarretik eta Orozko eta Urduña-Orduñatik urrutien dauden esparruetan, lurraldeko dentsitate txikiaren inguruetan turismo-jarduera sostengatzeko ezinbestekoa den zerbitzu-estaldura eskain dezaten.

Okondo, Artziniega eta Arespalditza funtzio hori betetzeko gune aproposak dira. Gune horietan hurrenez hurreneko eragin-eremuetan sortuko diren turismo-eskariak beteko dituzten zerbitzuen eskaintza indartzea proposatzen da.

Hirugarren sektorearen indartze hori gune horietako ostatu-eskaintza garatzeko ekimenen esparruan gertatu behar da, batik bat okupatu gabe dauden etxebizitzetako bizitegi-ostatuak bultzatuz, hiru guneetako bakoitzean kanpin-eskaintza txiki batekin eta kalitateko eraikuntzetako ostatu garrantzitsuekin osatuta.

Gainera, herri horietako bizitegi-hazkundearen proposamenak hirugarren sektorearen garapena sustatzen lagunduko du eta, horrenbestez, turismogune aproposagoak izango dira.

5.2.2. Lurralderako sarreraguneak.

Eskualde-egituraren muturretan kokatutako natura-espazio handiekiko ukipen-eremuetan natura-espazioen ate moduko eginkizuna beteko duten hainbat gune indartzea proposatzen da. Funtzio bikoitza dute. Alde batetik, natura-espazioei lotutako jarduerak eta zerbitzuak kudeatzeko gune gisa, bertan espazioak gozatzeko eta errentagarri egiteko beharrezkoak diren instalazioak kokatuz ingurumenaren ikuspegitik urrakorrak diren eremuei eragin gabe, natura-intereseko eremuetara beren karga-ahalmenarekin bat etorritik sartzeko kontrolatzeko elementu egokia eskainiz. Bestalde, herri horietan natura-espazioen bisitariak erakartzeari lotutako jarduerak eta produkzio-zerbitzuak kokatzea, kontserbazioa sustatzen duten eta natura-aktibo horiek eskualde-egitura dinamizatzeko elementu gisa aprobetxatzea ahalbidetzen duten errentak sortzen dituzten baliabide ekonomikoak eskainiz.

Gune horiek egokitze ekintzek gaur egun dauden eraikuntzak birgaitzean oinarritu behar dute batik bat; horretarako, funtzio horiek betetzeko beharrezkoak diren zuzkidurak instalatuko dira bertan. Etxebizitzak eta nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak birgaitzea eta bertan ostatu txikiak, aterpeak eta egoitzak, jatetxeak eta ostalaritzako establezimenduak eta inguruetako produktuen saltokiak ezartzea bisitarietarako zerbitzu-jardueretako batzuk dira. Halaber, hortik bisitari-talde antolatuek irten daitezke mugikortasun-era desberdinekin, ez bailitzateke utzi behar natura-espazioetara ibilgailu partikularrekin sartzen. Ondare-intereseko eraikinak izateak aukera eman dezake inguruko natura-balioei buruzko informazioa emateko erakusketa iraunkor txiki bat izango duen interpretazio-zentro bat kokatzeko. Bertan kartografia eta argitalpenak lortu ahal izango dira, baita ibilbideei, natura-esparruko portaera-arauei, akotatutako eremuei eta beste zenbait alderdiri buruzko dokumentazioa eskuratu ere. Zentro horrek, halaber, natura-espazioa kudeatzeko, gidatzeko, zaintzeko eta erabiltzeko zerbitzuak har ditzake. Paisaian integratutako aparkalekuak, picnic-eremuak eta bisitari-fluxuak hartzeko eta antolatzekeko bestelako azpiegiturak ezinbesteko elementuak dira gune horietan. Funtzio hori garatzeko honako gune hauek iradokitzen dira: Añes, Garobel mendiguneko ate gisa; Delika, Urduña-Orduñako nodoaren barruan, Gibijo mendigunerako eta Goi Nerbioirako; eta Urigoiti eta Gallartu, Gorbeiarako.

5.2.3. Ekoturismoko eremuak.

Azalera aldakorreko eremuak dira, eskualde-egituran zehar tamaina txikiko landagune eta landa-auzoetan kokatuta barreiatzen diren ostatu-kokaguneez osatzen dituztenak. Eremu horietan okupatu gabe dauden baserriak eta etxebizitza familiabakar bakartuak errolatu egingo dira, ahal den guztietan turismo-erabilerarako birgaitzeko eta zaharberritzeko, eskaintza bereziak garatzen ahaleginduz. Eraikuntzaren ezaugarriak eta bakartzea kontuan hartuta, emaitzako ostatuak sostengu dituzten eraikuntzen kalitatearekin eta aukerekin bat etor daitezten ahalegindu beharko da.

- Okondo-Llodioko eremua. Okondoko udalerriko kokagune sakabanatuak hedatzen direneko eremuek osatzen dute, herri hori Llodiorekin lotzen duen errepedearen iparraldean, Zudibiarte eta Ugaldeko gune txikien inguruan batik bat.

- Orozkoko eremua. Udalerraren ekialdean, hirigunearen ekialdean dauden landagune txikien multzoak osatua. Txirindularietarako zirkuituak konfiguratzeko bereziki egokia, baserrigune txikien dentsitate handiak (gehienak oso kalitate handikoak) oso eskaintza

berezia konfiguratzeko aukera ematen du, bakartuta egotearen onurak merkataritza eta ostalaritzako zerbitzuekiko hurbiltasunaren abantailekin konbina ditzakeena. Kokaguneen ezaugarriak eta tamaina direla-eta, ezinbestekoa izango da hirugarren sektoreko eskaintzak zorrotz planifikatzea, hala mimetismoak nola hutsarteak eta hutsuneak saihesteko. Oso garapen handiak dituen eremua da, bere ingurumen-kualitateak eta bizitegi-aktiboak aprobeztatzeko dituen plan berezi bat beharko duena. Eremu horretatik Gorbeia mendira sar daiteke eta horrek areagotu egiten ditu asteburuko eskaintzak garatzeko aukerak eta are Bilbaoko biztanleen eskariei erantzuneko liekeen bigarren bizitegi eskaintzak (baita lehen bizitegiak ere) estimulatzeko aukerak ere. Gorbeiko Natura Parkearen inguruetako eremuren batean, hurbileko periferian bertan, baserriak birgaitu egin beharko dira, eskaintza bereziak baina osagarriak osatzeko: naturako ikasgela, baserri-eskola, eskaintza gastronomikoak eta ostatukoak, zaldi-turismoko eskaintzak eta antzeko beste batzuk. Hurbileko lekuren batean, betiere inguru horretako paisaiarako eta ingurumenerako eragin negatibo adierazgarriak saihesten badira, bere baitan kanpin bat, merkataritza eta ostalaritzako zerbitzu-multzoa eta kirol-instalazioak hartuko dituen barruti bat eraiki beharko da. Instalazio horiek tamaina txikiak izango dira beti.

- Artziniegako eremua. Artziniegako gune nagusia eta hori inguratzen duten kokaguneak hartzen ditu, iparraldean kokatutakoak batik bat (Arza, Campijo, Santa Coloma, Los Heros, Barrataguren, Ureta eta Mendieta). Gune nagusiak interes nabarmena du, baina hiri-bazterren kalitate urriak, industria-erakin eta biltegi handiz inguratua, itxuragabetu egiten du bere landa-izaera eta narriatu egiten du bere kalitate estetikoak. Artziniegak eta bere inguruek turismoa garatzeko aukera handiak dituzte, betiere okupatu gabe dauden etxebizitzak sistematikoki erabiltzen badira. Nerbioiko Ardatzeko hirugarren sektoreko funtsezko grabitazio-puntuetatik urrun dagoenez, behar-beharrezkoa da autohormikuntzarako joera izango duen eskaintza askotarikoa eta konplexua garatzea, baina horrek ez du inbertsio handiak egin beharra ekarriko, landa-turismoaren behar eta eskari mugatuak kontuan hartuta. Eremuan dauden kokagune barreiatuetan okupatu gabe dauden etxebizitzak turismorako berreskuratu beharko dira. Eremua lurralderako sarreragunea da eta oso interes handiko eremuak hartzen ditu bere baitan. Beraz, posible eta komenigarria da ordezkotza bide-zirkuituak garatzea (bidezidorrak eta txirrindulari eta zaldizkoentzako bideak), seinale egokiak ezarri lurraldea kontserbatzeko prozedura egokien bidez erabiltzea ahalbidetuko baitute.

- Aiarako eremua. Aiarako udalerraren zati handi batek, A-624 errepidearen hegoaldean dauden kokaguneek batik bat, eta Urduña-Orduñako udalerriko beste gune batzuek (Belandia, Arbe, Koroze, Poza eta Lendoño) osatzen dute. Turismo-jarduerarako argudio bikainak dituen arren, zailtasun handiak aurki ditzake garatzeko kokaguneen ahuleria handiaren ondorioz, beren tamaina txikiak hirugarren sektorea behar adina garatzea eragozten baitu, are bertsiorik oinarritzen ere. Gune horietako batzuk indartzeko estrategiak okupatu gabe dauden etxebizitzak berreskuratzeko aukera eman lezake. Lehen sektorean lan egiten duen biztanle-portzentaje handiena eta zahartze-maila handiena duen eremua da. Horrenbestez, epe ertain eta luzera basamortutzeko joera izango du, okupatu gabeko etxebizitza-kopuru garrantzitsua metatuz, eta horiek turismorako berreskuratzea lehentasunez jotzen da. Ostatu-eremuek, gainerako kasuetan bezalaxe, bai tipologikoki bai kualitatiboki, kokatzen diren eraikuntzen ezaugarriak aintzat hartuko dituzte, ahal den neurrian saihestuz eraikuntzen narriadura dakarten emaitzak edo emaitzen eta erabilgarritasunen eta itxaropenen arteko bat ez etortzeak. Eremua kalitate handiko lurralde batera, Garobel mendigunera, hurbiltzeko puntua da eta bertan dago Maroñoko urtegia, ur-laminan zein inguruetan atsedean erabiltzeko har ditzakeena. Urtegiaren inguruetan, paisaia eta ingurumenarekiko eragina garrantzi txikiak edo ez oso adierazgarria den lekuren batean, gutxienez 250 plaza izango dituen kanpin bat eraikitzea proposatzen da, ahal bada hurbileko baserriren baten inguruetan, hala eraikina harrera-leku eta gizarte-klub gisa eta ostalaritza-jarduerarako euskarri moduan erabili ahal izango baita. Hurrengo faseetan konplexua bezero profesionalei zuzendutako kirol-instalazioz horni daiteke; kasu horretan hotel bat (edo egoitza)

instalatuko da eta horretarako arkitektura-kalitate handiko baserriren bat edo eraikuntza-multzoren bat aprobetxatu beharko da.

5.3.

LURRALDEKO SARE BERDEA

“Ekosistema Minipolitarra” oso ingurumen-kalitate handiko ingurune batean turismo eta aisia jarduerak garatzera zuzendutako espazio gisa indartzeko ezinbestekoa da lurraldearen kontserbazioarekin bateragarria den gozamina lortzeko eta jarduera horiek abiapuntutzat hartuta baliabide ekonomikoak sortzeko oinarria eskainiko duen berariazko azpiegituraz hornitzea.

Atsedeen-eremuak bisitariak eta jarduerak hartzeko egokitutako ingurumen-erakargarritasun handiko guneak dira, naturarekiko harremana eta ingurunearekin zerikusia duten jarduerak garatzea ahalbidetzeko era askotako esparruak eskaintzen dituztenak. Tipologia askotarikoa izan daiteke, eta hiru mota handi bereiz litezke:

- Atsedeen kontzentratuko eremuak. Nolabaiteko hirigintza-garapena edo instalazio konplexu samarrak egokitzea dakarten espazioei dagozkie. Kategoriatan honetan Urduña-Orduñako nodorako adierazitako aisia eta kiroletako jardunak, Maroñoko urtegiaren inguruak egokitzea eta Orozkon proposatutako aisia eta kiroletako eremuak sartuko lirateke.

- Natura-espazioak. Gorbeia, Gibijo eta Garobel mendiguneko eremuak sartzen dira. Inguru hauetan eragin berriak saihestu egin behar dira eta beraiei lotutako ekipamenduak proposatutako lurralderako sarreraguneetan kokatu behar dira.

- Atsedeen-eremuak. Ingurumenaren ikuspegitik erakargarriak diren eta aisia-jarduera estentsibo oso bigunetarako gutxi egokitu diren espazioak dira, pixkanaka gara daitezkeenak lurralde osoari estaldura emateko. Lurraldean dauden parkeen eta atsedeen-eremuen sisteman oinarritzen dira batik bat, eta beste osagarri batzuk proposatzen dira, hala nola Santa Luzia inguruan, Llodion, Etxaurrenen, Aiaran, eta Maroñoko urtegiaren inguruetan, Aiaran, garatzeko proposatzen direnak. Guztiek izan behar dute errepidez iristeko modukoak, baina irisgarritasun-maila aldatu egiten da eta barnealdean motordun ibilgailuak zirkulatzea eragotzi behar denez gero, paisaia guztiz integratutako aparkalekuak ezarri behar dira sarreretan. Sarbideetatik hurbil, harreraguneak ezarri behar dira, bisitari gehienak bertan egon eta erabiltzaileak barreia ez daitezen, hori arriskutsua izan baitaiteke espazio hauen ingurumen-kalitatea mantentzeko. Harreragune horiek kanpaleku txikiak, mahaiak eta aulkiak, janaria aire zabalean prestatzeko elementuak, ura, komunak eta abar izan behar dituzte. Atsedeen-eremuen barneko bideak lurraldea modu selektiboan iragazteko moduan tratatu behar dira, alde hauskorrenetara edo karga-ahalmen txikiena dutenetara sartzea eragotziz, pinudi, harizti eta pagadietara esate baterako.

Atsedeen-eremuek giro edo ingurune desberdinak hartzen dituzte beren baitan: harreraguneak, baso-eremuak, belardiak, begiratoki naturalak eta gailur-eremuak, ibai-tarteak eta ur-laminak, eta abar. Horietako batzuk, gune nagusietatik oso hurbil, bertako biztanleriaren berehalako aisia-eskariak hartzera bideratuta daude. Picnic-jarduerak, mendi-ibiliak edo mendiko bizikletan ibiltzeaz gain, eremu askok jarduera espezializatuagoak garatzeko aukera ematen dute. Esate baterako, eskualde-egituraren iparraldeko erdian dauden atsedeen-eremu askotan, inguru garaietan, 700 metroko altitudetik gora, eskalada edo delta hegala bezalako jarduerak egin daitezke.

Atsedeen-eremu bakoitza landagune bati loturik dago. Landagune hori erabiltzaileentzako zerbitzugunea izan daiteke, atsedeen-eremurako eta bertan biltzen diren Sare Berdeko ibilbideetarako eskaintza osagarria hartuz bere baitan. Jarduera horiek eta atsedeen-eremuetan kokatutako jardueretarako emakida-sistemak erabiliz espazio hauen autofinantzaketa ahalbidetuko duten baliabide ekonomikoak sortuko dira, izan ere hori baita beren funtzioa kalitaterik galdu gabe eta natura-baliabideak narriatu gabe garatu ahal izateko ezinbestekoak diren garbiketa eta mantentze lanak, kontserbazioa eta ingurumen-hobekuntza bermatzeko era bakarra.

Lurraldeko Sare Berdea lurraldean zehar ibiltzeko eta bere natura-balioez gozatzeko ordezkora eskaintzen duten ingurumen eta paisaia erakargarritasun handiko ibilbideen sarea da. Ibilbide horiek ibai-sarean, errepideetan eta landa-bideetan oinarritzen dira. Mugitzeko sistema desberdinak erabiliz ibiltzeko pentsatuta daude, hots, ibilgailuz, oinez, bizikletaz edo zaldiz ibiltzeko. Ibilbideak egokitu beharra dago, bideak moldatzeko eta kontserbatzeko ekintzak garatuz, garbituz, seinaleztatuz, landaredia berrezarrituz eta abar, eta kasu honetan ere automantentzea da funtzionamendu-irizpidea. Ibilbideek landaguneak eta atseden-eremuak elkarrekin konektatzen dituzte, lurraldean dauden natura, paisaia, ondare eta atseden intereseko elementuak lotuz. Horrez gain, Ardatz Teknopolitarreko hiriguneei lotzen zaizkie, garraio publikoko sistema handiekin konektatuz eta dentsitate handieneko eremu urbanizatuetatik lurralde bigunera iristeko erraztasunak emanez. Espazio minipolitarreko jardunen multzoa elementu desberdinak elkar indartu eta osatzen duten baterako eskaintza gisa konfiguratzea ahalbidetzen dute.

Bete dezaketen lurralde eta turismo funtzioa eta beren ingurumen ezaugarriak kontuan hartuta, oinezko, txirrindulari eta zaldizkoentzako hainbat ibilbide proposatzen dira, osotasunean batik bat turismo-erabilerara zuzendutako ordezkora bide-sistema osatzen dutenak. Sistema horren ezaugarriak eta bere luzerak (60 km inguru) eskualde-egiturako turismo-eskaintzaren protagonista bihurtzen dute.

- Okondoko zirkuitua. Udalerriko hirigunea Okondoko haraneko baso-esparruekin konektatzen du, Ugaldera eta Santa Luzia atseden-eremura iritsi arte, eta hor Llodioarekin konektatzen da.
- Izaldekoko zirkuitua. Okondotik Ibagueneraino igarotzen da Izalde ibaiaren ertzetik doan errepidean zehar.
- Pagolarko zirkuitua. Llodiotik Okondoraino igarotzen da, Izaldekoko zirkuituarekin konektatuz Pagolar mendian zehar.
- Nerbioiko zirkuitua. Ardatz Teknopolitar osoan zehar igarotzen da, parke linealari jarraituz eta geltokiekin eta hiriko bide bigunekin konektatuz.
- Orozkoko zirkuitua. Orozkotik Ibarrarako errepidean zehar igarotzen da eta adarrak ditu Urigoiti eta Adaro Bekoaraino, udalerriko hirigune nagusia (proposamen honetan turismo-eskaintza garrantzitsuenaren protagonista) eskualde-egiturako natura-espazio garrantzitsuenetako batekin konektatuz: Gorbeia mendiarekin. Mendebaldean Llodiorantz luzatzen da Santa Marina atseden-eremuan zehar.
- Artziniegako zirkuitua. Artziniega eta Ibalzibar ibaien ibilbideen eta Errotako errekaaren haranaren inguruan igarotzen da, Urruetatik Artziniegara, interes ekologiko handiko espazio batean, eta bidean Arteko Andre Mariaren atseden-eremuarekin egiten du topo Artziniegan.
- Aiarako haraneko zirkuitua. Artziniega Amurriorekin konektatzen du, Aiarako harana A-624 errepidearekiko paralelo zeharkatuz, Artziniega eta Llantenoetik Amurrioraino.
- Maroñoko zirkuitua. Aiarako haraneko zirkuitua Izoriaren parean konektatzen du, eta Izoria ibaia Maroñoko urtegiarekin eta Añesekin, Garobel mendigunerako sARBIDE nagusiarekin, konektatzen du, mendigunean barneratuz. Maroñotik Belandia eta Pozan barrena abiatzen den adar batek Urduña-Orduñarako sARBIDEA ematen du.
- Erbiko zirkuitua. Llanteno Añesekin eta Garobel mendigunearekin konektatzen du, Aiarako zirkuituak mendebaldetik itxiz.
- Padurako zirkuitua. Amurriotik abiatzen da eta A-624 errepidearen ertzetik igarotzen da Padura eta Lezamaraino, eta hor Berganzarako errepidea hartzen du, eta Berganzatik Baranbiora eta Gorbeia bidezidor-sarera zuzentzen da.

- Urduña-Orduñako zirkuitua. Urduña-Orduñako hirigunetik izen bereko haranean barneratzen da, eremu honetarako proposatutako korridore berdeak barne hartuz, Delikako bidea izanik ardatz nagusia.

6. AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK

Eskualde-egituraren irisgarritasuna, hiri-eremuen eta landa-eremuen arteko interkonexio-sistemak eta telekomunikazio-azpiegiturak lurralderako oinarritzko lehiakortasun-aktiboak eta lurralde-proposamenaren funtsezko elementuak dira. Horiekin batera, ekipamenduek eta zuzkidurek hiri-eremuen erakargarritasuna areagotzeko funtzio garrantzitsua dute, eta laguntza erabakigarria eman behar dute eskualde-egiturako gune nagusien hiri-funtzioak indartzeko.

6.1. ERREPIDEAK ETA GARRAIO PUBLIKOKO SISTEMAK

6.1.1. Ardatz egituratzaileak.

A-624 eta A-625 errepideak eskualde-egiturako barne-komunikazioak egituratzen dituzten bi bide-ardatzak dira. Azpiegitura horiek proposatutako hazkundeak kokatzeko erreferentziako elementutzat jotzeak mugikortasun-eskariak eraginkortasunez asetzeko aukera emango du, garraio publikorantz bideratutako lurralde-egitura ahalbidetuz. Nerbioiko harana igarotzen duen A-625 errepideak Ardatz Teknopolitarraren errepide-azpiegitura nagusia eskaintzen du. Ipar-mendebaldetik hego-ekialderako noranzkoan, A-624 errepideak Artziniega eta eskualde-egituraren mendebaldeko erdiaren zati handiena Nerbioiko Ardatzarekin komunikatzen du Amurrion. Funtsezko eginkizuna betetzen du eskualde-egiturako landa-eremuetako lurralde bigunean oinarritzen den garapen-eredua finkatzen. Errepide horretan zeharreko trafiko-baldintza eraginkorrek ezinbestekoak dira esparru horietarako proposatzen diren bizitegi, ekonomia eta aisia jarduera berrietarako sarbide erraza eskaintzeko, hiri-eremuetan kokatutako zerbitzuetara eta etorkizunean Bilbaorekiko konexioak kanalizatu behar dituen erdiko trenbide-ardatzera hurbilduz.

Bere izaeragatik oso garrantzitsua da errepide horien paisaia-ezaugarriak zaintzea, beren funtzionaltasuna hobetzen den aldi berean. Herrietako saihebidetuek egitea, Saratxo eta Urduña-Orduña artean trafiko-baldintzak hobetzea eta Amurrioko ingurabidea ekialdetik osatzea ekimen zeharo garrantzitsuak dira ibilbide horien lurralde-funtzioei bultzada emateko.

6.1.2. Gune periferikoak hurbiltzea.

Bi bide egituratzaile nagusiekin batera, errepideko beste bi konexiotan esku hartu beharra dago. Okondo eta Orozkoren Llodioerako komunikazioak dira. Erlazio horiek hobetzea ezinbestekoa da eskualde-egiturako esparru guztiak egoki integratzeko, orain neurri handi batean kanpoko grabitate-zentroetarantz baskulatzen diren gune eszentrikoak txertatuz, herri horiek lurralde-eskaintza dibertsifikatzeko estrategietan eta Nerbioiko Ardatzaren iparraldeko erdian hazkunde ez-pilatzailea garatzeko estrategietan eginkizun aktiboagoa betetzea ahalbidetuz.

Lurraldearen gainerakoan, landa-errepideen sareak bere izaera bigunari eutsi behar dio, paisaian integratuta jarraituz, ekosistema minipolitarrerako proposatutako strategiaren oinarritzko elementu gisa. Landa-bideak hobetzea funtsezkoa da esparru minipolitarrak irisgarritasunez hornitzeko eta Lurraldearen Zatiko Planean proposatzen diren biztanleria erakartzeko eta turismo-fluxuak kanalizatzeko aukerak gauzatu ahal izateko.

6.1.3. Garraio publikoa, mugikortasun iraunkorrerako giltzarria.

Errepideko garraio publikoa indartzea oso garrantzitsua da eskualde-egiturako espazio ugarien arteko integrazio egokia lortzeko, eta ezinbestekoa planteatutako hazkundera lurraldearen iraunkortasun orokorrerako benetako bidea izan dadin. Zerbitzu horien antolakuntza eraginkorrek aukera eman behar du datozen urteetan gero eta handiagoak izango diren mugikortasun-eskariak batik bat garraio kolektiboko sistemen bitartez bideratzeko, joan-etorri kopuruaren gehikuntzaren ingurumen-eragina murriztuz eta lehiakortasuna galtzeko arriskuak saihestuz kongestioaren mehatxupean dagoen espazio batean.

Elementurik garrantzitsuena trenerako zuzeneko sarbiderik ez duten udal-burutzak edo Ardatzean zehar kokatutako hirietatik urrutien dauden auzoak tren-geltokiekin konektatutako dituzten autobus-sistema eraginkorrek indartzea da. Garraio publikoaren beste erronka handia eskualde-egituraren eta Vitoria-Gasteizen arteko autobus-konexioak areagotzea da.

Eskualde-egiturako landagune txikietan garraio publikoaren premiak konpontzea bereziki zaila da. Eskari hori asetzeko funtsezkoa da oinarritzko ekipamenduak, saltokiak, bulego publikoak eta abar ez dituzten herriak bizitasunez hornitzeko eta eskualde-egiturako hiri-eremuetan

kokatutako zerbitzuen zentraltasuna eta biztanle-atalasea areagotzeko. Guneen tamaina txikiaren eta izaera sakabanatuaren ondorioz, erabat bideraezina da zerbitzu erregular konbentzionalak zerbitzugintzan kalitate jakin bat lortu ahal izateko maiztasun egokiekin mantentzea. Egoera horri erantzuteko adostasun zabala lortu da udalerrien artean esparru horien premietara moldatutako zerbitzuak izatearen egokitasunari buruz. Hala, zerbitzu horiek plaza gutxiko ibilgailuen bidez egingo dira (Txikibus izenekoak: minibusak, auto monobolumenak...) eta eragiketa-kostuak murriztean garraio publikoko sistemetarako irisgarritasuna areagotzea ahalbidetuko dute.

Sistema horien erabilera makaldu ohi duten zerbitzu-maila baxuak saihesteko, dentsitate txikiko espazio horien beharretara egokitutako "eskatu ahalako" zerbitzu-modalitateak sartzea komeni da.

6.2.

KANPOKO KONEXIOAK

Eskualde-egitura espazio mugakideekin, bere inguruan kokatzen diren hiriguneekin eta ekipamendu handiekin konektatzea ezinbesteko baldintza da Lurraldearen Zatiko Planaren lurralde-proposamen osoari zentzua emateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-hirian parte hartzearen ikuspegitik baino ezin du planteatu Aiarako eskualde-egiturak lurralde, hiri eta ekonomia berrikuntzako eta hurrengo hamarkadak markatuko dituzten dinamika globalekin bat egiteko asmo handiko proiektu hori.

6.2.1. Bilbao eta Vitoria-Gasteizetikiko komunikazioa.

Nerbioiko Ardatz Teknopolitarra distantzia berean dago Euskal Hiriburuen Gune Anitzeko Sistema osatzen duten bi hirigunetatik. Bilbaoko eremu metropolitarran integratuta, Arabako hiriburuarekin lotura sendoak dituen espazioa da. Posizio pribilegiatua betetzen du Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-hiriaren egituraketan oso funtzio garrantzitsua betetzeko. Eskualde-egituraz kanpoko komunikazio-azpiegiturak indartzeko ahaleginari eustea, horrenbestez, eskualdearen esparrua gainditzen duen garrantzia duen helburua da. Eskualde-egiturak beharrezkoak diren azpiegiturak izan behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoko ondasun, zerbitzu eta eskulan merkatu nagusian parte hartzeak eta goi-mailako ekipamenduen eskaintza zabala edukitzeak ematen dizkion abantailak aprobetxatu ahal izateko.

Nerbioiko haranean zehar komunikazio bikainak daude Bilbaorekin errepidez eta trenbidez. Lehenetsuneko da Vitoria-Gasteizetikiko komunikazioak nabarmen hobetzea, A-624 errepidearen zerbitzu-maila modu adierazgarrian handituz Amurrio eta Altube artean.

Bilbaoko eremu metropolitarran egituratzeko eta deskongestio-estrategiak ahalbidetzeko interes ikaragarria dute Kadaguako eta Nerbioiko hazkunde metropolitarrako ardatzak lotzen dituzten konexioek: Aiarako haraneko ibilbidea, Balmaseda-Artziniega-Amurrio eta Llodio-Okondo-Gordexola-Sodupe ibilbidea. Enkarterriaren eta Aiarako eskualde-egituraren arteko konexio horiek ezaugarri komun ugari dituzten espazioen artean sinergia garrantzitsuak agertzeko aukera sortzen dute.

6.2.2. Portu eta aireportuekiko konexioak.

Nazioarteko mailako garraio eta komunikazio azpiegitura handiak hurbil izatea eskualde-egituraren etorkizunerako lurralde-aktibo nagusietako bat da. Errepidez zein trenbidez, Ardatz Teknopolitarreko nodoak Bilbaoko portuaren eta Sondikako aireportuaren berehalako eragin-esparruan daude, 30 minutu inguruko bidaia-denborak dituzte-eta. Errepidez distantzia bertsuan dago Vitoria-Gasteizko Forondako aireportua, Europa osoan karga-hegaldietan hazkunde handiena izan duena eta bere inguruan Araba Erdialdeko Berrikuntzaren Arkuko jarduera eta logistikako espazio handia egituratzen duena.

Egoera horrek ikaragarri handitzen ditu jatorria edo helmuga eskualde-egituran duten salgai eta bidaiarientzako kanpoko interkonexioko aukerak, eskualde-egituran kokatutako enpresentzako lehiakortasuna hobetzeko aukerak areagotuz eta esparru metropolitarran handi batzuk bakarrik eskura izan dezaketen aukera sortuz ekonomia global berrian gorantz egiten ari diren sektoreei lotutako industria eta zerbitzuetako jarduera sofistikatu berriak agertzeko.

6.3.

TRENBIDEA, GARRAIO PUBLIKORAKO AUKERA HANDIA

Hiri-hazkunde iraunkorreko esperientziarik berritzaileenak garapen-prozesuak mugikortasun-
eskariak ingurumen, ekonomia eta lurralde inpakturik txikienarekin konpontzea ahalbidetzen
duten garraio publikoko ardatz indartsuen inguruan kontzentratzean oinarritzen dira. Arestian
adierazi dugun bezala, Bilbao – Urduña-Orduña aldiriko linea Nerbioiko Ardatz
Teknopolitarraren proposamena sostengatzen duen funtsezko elementua da. Bizitegi-erabileren
eta jarduera ekonomikoen Ardatzean zeharreko hazkundera, hiri-dentsitatea areagotzea
sustatuz, ahalmen handiko trenbide-garraio publikoko sistema baten existentzian oinarritzen da
batik bat. Erosotasun eta bizkortasuneko irizpideekin sortutako sistema horrek konexio
eraginkorrak ahalbidetzen ditu Ardatzeko nodoen artean eta horien eta Bilbaoren artean.

Hazkunde-ahalmen handiko azpiegitura da, Bilbao eta Vitoria-Gasteizen artean abiadura
handiko trena egiten denean ezabatu egingo baitira gaur egun tarte hori Bilbao penintsularen
barnealdearekin konektatzeko erabiltzen duten ibilbide luzeko bidaiarien trafikoak. Bilbaoko
portuan sartu eta bertatik irteten diren salgaiak garraiatzen dituen trenbide-linea izatea, gainera,
funtsezko elementua da Amurrion banaketa-jarduera berriak proposatzeko.

Hain azpiegitura garrantzitsua denez, aurrera egin behar da bere hobekuntzan. Zenbat eta
handiagoa izan egindako zerbitzuaren kalitatea eta bizkortasuna, hainbat eta handiagoa izango
da trenak Ardatzean zeharreko joan-etorrien portzentaje handiena bereganatzeko izango duen
ahalmena. Etorkizun hurbilean, Abandoko geltoki intermodalak gainerako garraio-zerbitzu
metropolitarrak (metroa, autobusak, Eusko Trenbideak...) iristeko aukera emango die linea
horren erabiltzaileei. Gaur egungo geltokiak eta geralekuak nodoen egitura berrira egokitu
behar dira eraginkortasuna areagotzeko. Gainera, Amurriotik eta Urduña-Orduñatik bidaiari-
denbora murriztu egin behar da; horretarako, eskari handieneko orduetan eskualde-egiturako
hiru biztanlegune garrantzitsuenak Abandoko geltokiarekin tarteko geldialdirik gabe konektatuko
dituzten "anezka" gisako trenak planteatu daitezke. Garrantzitsua da, halaber, garraio publikoko
sistema metropolitarra osatzen duten gainerako elementuekin tarifak bateratzeko eginkizunean
aurrea egitea, beste garraio-moduekiko konexioa ahalbidetzeko eta errazteko.

Geltokiak funtsezko elementuak dira garraio metropolitarraren estrategia horretan, bertan
gertatzen baita eskualde-egituraren eta trenbidearen eta helmuga desberdinen arteko konexioa.
Behar-beharrezkoa da Ardatzeko udalerrietako hiru geltokietan jardutea, bidaiari berriak
trenbiderantz erakartzeko ahalmena handitu nahi bada. Ardatzeko hiru nodo nagusietako
geltokiak hiri-zentraltasuneko polo gisa ulertu eta sortu behar dira, eta beren inguruetan
etxebizitzak, lantokiak, merkataritza-espazioak eta zerbitzuak kokatu. Gainerako hiri-esparrutik
eta Ardatzaz kanpoko herriguneetatik geltokietarako sarbidea erraztu behar da,
erabiltzaileentzako aparkalekuak ezarri, tren/autobus truke-sistemak ezarri eta ordeko garraio-
aukerekon konektatu, hala nola oinezkoen espazio eta bidegorri berriekin, lurralde
minipolitarrean zeharreko ibilbideetarako abiapuntu gisa.

6.4. TELEKOMUNIKAZIOEN GARRANTZI ESTRATEGIKOA

Telekomunikazio-azpiegiturak faktore erabakigarria dira jarduera ekonomikoen produktibitateko eta lehiakortasunerako. Lurralde batek ekimen berritzaileak hartzeko aukera gero eta neurri handiagoan dago informazio eta telematikako zerbitzu aurreratuak izatearen eta arlo horretan etengabe sortzen diren prestazio berriak eskuratzeko ahalmenaren mende.

Espazio lehiakorrek garapen ekonomiko eta hiritarreko prozesuak sortu behar dituzte, horien dinamismoak eta potentzialtasunak erakargarria eta errentagarria bihurtzeko zerbitzu horiek kosturik txikienean egiteko operadoreen arteko lehia.

Aiarako eskualde-egituraren abiapuntuko baldintzak ezin hobeak dira ildo horretan, helburu hori lortzeko oinarrizko azpiegitura sendoa baitago: zuntz optikozko sare zabala dauka eta oinarrizko telekomunikazio-nodoetako bat Amurrion dago. Etorrizuneko erronka zuzkidura horiek aprobeztatzen jakingo duten, biztanle-dentsitate txikieneko eremuetara hedatzea ahalbidetuko duten eta komunikazio-modu berrien bitartez konfiguratu den gizarte berriaren aukerak potentzial osoan aprobeztatzeko ahalmena handituko duten ekimen ekonomikoak, sozialak eta instituzionalak bultzatzean datza.

Eskualde-egiturarako proposatutako lurralde-estrategia gizarte global berrian mundu osoko zerbitzuak, merkatuak eta informazioak eskuratuz parte hartzeko gizartearen, agente ekonomikoen eta erakundeen ahalmena indartzeko apustua da. Tokiko mailan truke, jarduera eta harremanetarako aukera berriak agertzen dira, joan-etorriak fisikoki egiteko premiak murrizten diren aldi berean. Gizarteak tokiko gobernuen erabakietan parte hartzeko aukerak areagotu egiten dira eta handitu egiten da, halaber, gobernuok herritarrei zerbitzu hobeak egiteko, lurraldea kudeatzeko eta bere garapena bideratzeko ahalmena.

Bereziki garrantzitsua da Interneten gero eta presentzia handiagoa duten azpiegitura telematikoen oinarrizko lankidetzaren sare hiritarretan parte hartzeko aukera. Sare horiek informazioa eta esperientziak trukatzeko aukera ematen dute, garapen ekonomikoan eta tokikoan laguntzeko eta finantza arloan esku hartzeko ahalmena duten erakundeen erabakietan eragina izateko aukera. Datozen urteotan sare horietan presentzia aktiboa izatea ezinbesteko baldintza izango da lurralde dinamiko eta berritzaileak ziztu bizian konfiguratu ari diren ekonomia globalaz kanpo geratu nahi ez duten espazioentzat.

6.5. LURRALDEAREN EKIPAMENDURAKO LEHENTASUNAK

Lurralde-ereduak eskualde-egiturarako planteatzen dituen funtzio berriek ekipamendu-eskaintza birkualifikatzea eskatzen dute. Ildo horretako ekintzak eskualde-egiturako zuzkidura-eskaintzan konplexutasun eta sofistikazio handiagoa lortzera bideratu beharko dira, biztanlegune nagusien alderdi hiritarra indartzeko eragiketekin eta biztanleria gero eta prestatu eta exijenteagoaren ezaugarriekin bat etor dadin.

Parte hartzeko prozesuaren emaitzak guztiz adierazgarriak dira ildo horretan. Eskari garrantzitsua dago hezkuntzako edo kiroletako oinarritzako zuzkidurak hobetzeko, baina lehentasun-maila handienak osasunari, gizarte-laguntzako premia berriei, aisiari, kulturari eta jarduera ekonomiko berriei lotutako ekipamendu aurreratuei ematen zaizkie.

Gaur egun dauden hezkuntza eta ikerketako ekipamenduez egiten den balorazioak onargarritzat jotzen ditu lehen eta bigarren irakaskuntzako zuzkidurak eta lanbide-heziketakoak. Lehentasunezko ekimentzat jotzen dira eskualde-egiturako produkzio-jarduera nagusiei lotutako I+G zentroak ezartzea eta eskualdeko ekonomiaren etorkizunerako nahi den produkzio-dibertsifikazioa bultzatzea ahalbidetuko duten enpresa-prestakuntzako zentroak ezartzea.

Kirol-ekipamenduan zuzkidura-maila urria dagoen arren, ez dirudi eskualde-egiturako biztanleen egungo lehentasunetako bat denik. Kiroldegiak eta kirol-hiriak dira, funtsezko ekipamenduak diren heinean, etorkizunerako lehentasunezko zatitzat jotzen direnak, eta ekipamendu sofistikatuen beste aukerei askoz ere arreta txikiagoa eskaintzen diete.

Eskualde-egituran dauden turismo-jardueretarako eta aisiarako zuzkidurak eta azpiegiturak urritzat eta kalitate txikikotzat jotzen dituzte gehienek. Elementu horien gain jarduteko lehentasun-mailei buruz egiten diren balorazio altuek adierazten dute lurraldearen etorkizunerako ekintza-ildo garrantzitsuenetakoa dela biztanleen iritziz. Hotelak, oinezkoentzako ibilbideak, natura-inguruneke atsedeen-eremuak eta hiri-espazioak (kaleak eta plazak) topaleku gisa egokitzea, horiek dira jendearen iritziz egungo eskaintza bertako biztanleentzat eta kanpoko turistak erakartzera zuzenduta hobetzeko ekimen garrantzitsuenak.

Eskualde-egiturako kultura-ekipamenduen egoera orokorra oso negatibotzat jotzen dute. Iritz negatibo hori kultura-jardueretarako azpiegituren gabeziari eta gaur egun eskualde-egituran dagoen kultura-eskaintzaren edukien kalitate urriari dagokie. Lehentasunak liburutegien eta kultura-etxeen eskaintza hobetzera eta bertako tradizioak eta jaiak ezagutzera ematera zuzendu behar dira.

Eskualde-egiturako merkataritza-eskaintza urritzat jotzen dute eta Bilbaoko eremu metropolitarrak hurbil egotea da eskualdeko merkataritzaren hazkundea tradizionalki mugatu duena. Lehentasun garrantzitsuena eskualde-egiturako merkataritza-eskaintza orokorra hobetzea da eta gehienek iritziz hiriguneetako merkataritza-kaleak eta hirietako merkataritzaguneak dira etorkizunerako lehentasunez bultzatu behar diren merkataritza-modalitateak.

Jarduera ekonomikoetarako kokaguneen modalitateak ez oso egokitzen dituzte. Hain zuzen ere, produkzio-egituraren transformazioari eta enpresa-ehunaren hazkundeari lotuago daudenak dira lehentasunezko zatitzat jotzen direnak: industria-parkeak, enpresa-parkeak eta berrikuntza-zentroak (enpresa-inkubadoreak). Industria-poligono konbentzionalen eta hotel-ekipamenduen hobekuntza ere eskualde-egiturako ekonomia hobetzeko ekimen garrantzitsutzat jotzen dira.

7. LURRALDEAREN GOBERNUA

7.1. LURRALDEA KUDEATZEKO FORMULA BERRIAK

Eskualde-egiturako gizarte, ekonomia eta lurralde arloko erronka berriek horiei aurre egiteko era berriak eskatzen dituzte.

Lurraldearen kudeaketa eta gobernu, gero eta neurri handiagoan, oinarritzko lehiakortasun-tresna gisa konfiguratu dira. Borondateak lurralde-proiektu baten inguruan batzeko ahalmena, etorkizuneko estrategia bat diseinatu eta aurrera eramatekoa eta lurraldean jarduteko modu berriak irudikatu eta abian jartzeko dira azkenean, beste edozein faktore baino gehiago, lurralde baten garapen eta ongizaterako aukerak zehazten dituzten ezaugarriak.

7.1.1. Lurralde eta hiri kudeaketa.

Testuinguru horretan zeharo erabilgarria da lurralde eta hiri kudeaketa sartzea, lurraldea kudeatzeko kultura berri baten agerpena eragingo duen elementu gisa. Kontzeptu orokor horretan, sektore publikoa da lurralde-ekimenen buru baina ez da horiek monopolizatzen ahalegintzen, eta abiarazlearen jarrera aktiboa hartzen du, baina gizartea da azken buruan konponbide egokienak antolatzen dituen. Ikusmolde hau eraginkortasunik handiena erakusten ari da gure gizartea erabat aldatuko duten berrikuntza-prozesuen artikulazioan. Administrazioak dinamizazioa bere oinarritzko ezaugarri bihurtzen du eta sortu duen gizartearen isla izango den aldaketa-faktore bihurtzen da eta ez gizartearen kontra doana. Lankidetzaren publiko-pribatuaren estrategiak formula eraginkor eta dinamiko gisa agertzen dira lurralde-aldaketako prozesuak bultzatzeko eta hazkunde eta aldaketa estrukturala dakarten garapen-ekimen berriak bideragarri egiteko, ongizateko, gizarte-kohesioko eta ingurumen-kalitateko irizpideak txertatuz.

7.1.2. Eragiketa pilotuak.

Estrategia horretan funtsezkoa da hainbat jardun puntual selektiboren ondorio den "frogapen-efektua" faboratzea. Hala, proiektu arras zainduen, kalitate handikoen eta erraz kontrola daitezkeen ospea eta irudi positiboa lurralde-estrategia osoari helarazi nahi zaion irudi orokorrari lot dakiok. "Frogapen-efektua" horrek sustapen publiko edo pribatuko beste esku-hartze batzuen kalitatea estimatu behar du, ospe orokorra areagotuz eta emaitza sortuz eskualdeko lurraldearen pertzepzio integralagoan, eskualde-egiturakoa izatearen sentimendua estimatuz zeharka.

Helburu horrekin, Lurraldearen Zatiko Planak frogapen-efektu hori lurraldearen pertzepzioan eta funtzionamenduan epe laburrean aldaketak eragiteko ahalmenarekin bateratuko duten eragiketa pilotuak garatzea proposatzen du. Eragiketa horiek aukera eman behar dute lurralde-ereduak proposatzen dituen epe luzerako transformazio-prozesuetan aurrera egiteko beharrezkoak diren esperientzia eta operatibotasuna eskuratzeko. Ekintza bultzatuko duen eta garatutako ekintzei buruzko ondorio operatiboak ateratzeko aukera emango duen sistema bat diseinatu nahi da, hasierako planteamenduak sortzen diren zirkunstantzia berrietara eta esperientzia bakoitzaren emaitzara moldatu ahal izateko. Ereduaren oinarritzko planteamenduetatik abiatuta, jardun bakoitza berraztertu ahal izango da eta ekintza berrietarako ondorio erabilgarriak atera, zirkunstantzia berriei erantzun bizkorrak eta egokiak eman ahal izateko. Ziurgabetasuneko egoeretan proba eta errearen sistema izango da, sarritan, erabil daitezkeen bakarra.

7.1.3. Lurzoruaren kudeaketa publikoa

Lurzoruaren garestitasuna faktore erabakigarria da eskualde-egituran antzematen diren etxebizitza eskuratzeko zailtasunetan, eta biztanleen ongizaterako oztopo nagusietakoa da gainera. Lurraldearen Zatiko Planak eskualde-egituraren bizitegi-ahalmena handitzeko edo jarduera ekonomikoetarako espazio berriak garatzeko egiten dituen proposamenek bideraezinak izateko arriskua dute onartu ezin diren prezioak eragiten dituen eta, horrenbestez,

lurraldearen erakargarrtasuna eta lehiakortasun orokorra murrizten dituen lurzorua okupatzeko eskema konbentzional batean.

Muga hori gainditzeko ezinbestekoa da botere publikoei hiri-garapeneko prozesuetan arintasunez esku hartzeko aukera emango dieten sistema berriak izatea, lurzorua garestitze artifiziala eragiten duten egoerak saihestuz. Gaur egun Nafarroa bezalako autonomia-erkidegoak arazo horietako batzuk gainditzeko ahalbidetzen duten formula berritzaileak garatzen ari dira. Landa-lurzoruko pakete handiak prezio merkean erostea eta gero, enpresentzako eta partikularrentzako prezio eskuragarriak bermatuko dituzten baldintzetan, operadoreen eskuetan garatzeko jartzea, Iruñerriko eskualdeko hiri-garapen garrantzitsu batzuetan erabiltzen ari den formula da.

Mota horretako jardunak, hiri-plangintzaz kanpokoak, lurraldearen eta hirigintzaren ikuspegitik eraginkorrak izan daitezten, ezinbestekoa da hiri-proiektu koherente bat izatea.

Esperientziak erakusten duenez, plangintza konbentzionala izate hutsak, helburuen, espazioen eta funtzioen arteko korrespondentzia egokia ezartzen duen hiri-proiekturik ez badago, herriguneeen deskonpentsazio morfologiko eta estrukturalako prozesuak ekarri ohi ditu. Lurraldearen Zatiko Planak hiri-proiektu orokor bat identifikatzeko oinarritzko erreferentziak eskaintzen ditu eskualde-egiturako herriguneetarako eta, bereziki, hiri-egitura integratuzat jotzen den Ardatz Teknopolitarrerako eta garapen-proposamen berriak kontzentratzen dituzten hiru osagai nagusietako bakoitzerako. Erreferentzia hori ezinbestekoa da hazkundearen gizarte-onurak maximizatzen bideratutako hiri-garapeneko metodo berri horiek bermekin aplikatu ahal izateko.

7.2.

DINAMIZAZIO AGENTZIA

Tokiko perspektiban eskualde-egiturako udalerrien egungo arazoetako askok nekez konpontzeko modukoak dirudite eta dinamizazio eta garapeneko ekimenak abian jartzeko ahalmena ahulegia da udalerrri bakoitzaren potentzialtasunak bakarka kontuan hartzean. Gizarte berri baten eskariei erantzuten dien eta garapen-aukera berriak sortzen dituen espazio historiko bateko transformazio estrukturalako prozesu batek kudeaketa-era berriak behar ditu, administrazio-zatikatzearen ordezkari gizariek eta erakunde lankidetzako estrategiak aintzat hartzen dituenak.

Parte hartzeko prozesuaren emaitzek erakutsi duten bezalaxe, akordio zabala dago eskualde-egituraren etorkizuneko itxaropenak hobetzeko baldintza beharrezko gisa eskualdeko irismena duten koordinazio eta integrazioeko estrategiak abian jartzeko premiarik buruz. Lurraldearen Zatikatu Plan honen lurralde-ereduak erakusten du eskualde-egituraren tokiko eskala soilean egindako analisian antzematen ez diren soluzioak eta aukerak identifikatzeko aukera ematen duela udalaz gaindiko perspektibak. Esparruen eta udalerrien arteko osagarritasun eta sinergien ondorioz, eskualde-egitura osotasunean lurralde-esparru askoz ere aberatsagoa, konplexuagoa eta aukeraz beteagoa da osatzen duten herrietako bakoitzaren abantailen batura hutsa baino.

Gaur egun ez dago eskualde-egitura osorako lurralde antolamendu eta garapeneko politika garatzeko aukera emango duen egitura politiko edo administratiborik. Landa Garapeneko Elkarteak eskualde-egitura honetan inplikaturako bi eskualdeei dagozkien eta Landa Garapenari buruzko 10/1998 Legearen esparruan landu diren Eskualdeko Landa Garapeneko Planak aplikatu eta garatzearen arduradunak dira. Bestalde, Aiarako herri-batzarra landa-garapeneko eta zerbitzugintzako ekimen batzuetan jarduten duen udalaz gaindiko erakundea da. Bizkaikoak izan arren, Urduña-Orduñak eta Orozkok herri-batzarrak egiten dituen zerbitzu erkidetu batzuetan parte hartzen dute. Zirkunstantzia horiek ikusirik, pentsa liteke herri-batzarra izan daitekeela tokiko ekimenak koordinatzeaz, udalaz gaindiko intereseko jardunak garatzeaz eta aldundiak, Eusko Jaurlaritzaren edo Europar Batasuna bezalako beste erakunde batzuen aurrean eskualde-egitura osoaren solaskide gisa jarduteaz arduratuko den eskualdeko kudeaketa-erakundea eratzeke antolakuntza-oinarria.

Lurraldearen Zatikatu Planak eskualde-egiturako erakundeen eta kolektibo sozialen arteko adostasun orokor baten emaitza izan behar du. Akordio hori lortzen den heinean, Lurraldearen Zatikatu Plana funtsezko erreferentzia izan daiteke udalaz gaindiko erakunde horri edukia eta ekintza-oinarria emateko.

Gisa horretako estrategia batek bi jardun-maila dakartza. Alde batetik, dimentsio politiko bat dago, lehentasunak eta erantzukizunak ezartzeko eta erakundeen arteko akordioak garatzeko. Zuzendaritza-funtzio hori eskualde-egiturako udaletako ordezkari politikoei dagokie. Alkate-multzoa da zuzendaritza politikoaren funtzioak bere gain hartu behar dituen ordezkari-organoa, horren inguruan eskualdeko lankidetzaren eta integrazioerako egitura eratzeke.

Horrez gain, udalaz gaindiko estrategia bat garatzeak kudeaketa eta dinamizazioko jarduerak eskatzen ditu, ekimen berriei sostengua ematekoak, proposamenen jarraipena egin eta haiek betearaztekoak eta lurraldean dauden ahuleria estrukturalak gainditzeko laguntza teknikoak eta administratiboak ematekoak. Funtzio horiek aurrera eramateko gerentzia moduko berariazko tresna bat behar da, Eskualdeko Kudeaketa Organoaren maila betearazlea eratuko lukeena, alkate-multzoa osatutako zuzendaritza politikoari erantzun beharko liokeena. Bete behar dituen funtzioak kontuan hartuta, maila betearazle horrek Eskualdeko Garapenerako Agentzia baten ezaugarriak eduki beharko lituzke.

7.2.1. Eskualde-egiturako dinamizazio-agentzia

Aiarako Eskualde Egiturako Dinamizazio Agentzia eskualdeko lurralde osoa sustatzeko eta dinamizatzeko estrategiak bultzatzeko tresna gisa proposatzen da. Bere bitartez, enpresa-

jarduera berrien agerpena mugatzen duten ahuleriak eta estutzeak gainditzea, lurralde-eredu berria osatzen duten udalaz gaindiko intereseko ekintzak garatzea eta lurraldearen lehiakortasuna eta espazio ekonomiko zabalagoetako integrazioa hobetzeko ekimenak sustatzea ahalbidetuko duen erakunde bat eduki nahi da.

Agentziaren lehen funtzioa eskualde-egiturako herritar, enpresaburu eta erakundeentzako erreferentzia-puntu eta informazio eta aholkularitzako leihatila gisa jardutea da. Europako edo Euskal Autonomia Erkidegoko funtsen eta ekimenen laguntzak bezalako gaiak agentzia horretatik izapide litezke.

Garapen eta hiri-berrikuntzako prozesuen kudeaketak hainbat lan egin beharra dakar: lurzorua hartzea, enpresaburuekin, erakundeekin eta zerbitzu publikoetako arduradunekin akordioak lortzea, inbertsioak bilatzea eta abar. Horretarako eragiketa konplexuak lurralde-ereduak eskaintako eskema orokorraren arabera gauzatzeko gai den egitura behar da. Enpresa-garapenari dagokionez, agentziak industria-lurzorua eta enpresa-espazioak hiru alderditatik kudeatzeko funtzioa har lezake bere gain:

- Eskaria gaur egun dagoen industria-lurzorua eskaintzarekin konektatzea.
- Prestatzen ari diren mikroenpresak eta enpresa-proiektuak hartzeko lokalak prestatzea.
- Zerbitzu-enpresetarako eraikinak egokitzeko estrategian parte hartzea.

Helburua enpresa-jardueretarako espazioen eskaria eskualdeko garapenerako funtsezko hiru segmentutan kudeatzea eta estimulatzea da: industria-enpresak, zerbitzu aurreratueta enpresak eta sortzen eta aztertzen ari diren enpresa-proiektuak.

Dinamizazio-agentziak bere ekintza eskualde-egituran dauden ikastetxeekin eta prestakuntza-zentroekin koordinatu beharko luke, eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan jarduteko aukerak aprobeztatu, Bilbaoko eta Vitoria-Gasteizeko unibertsitate-ikastegiekin batik bat. Koordinazio hori behar-beharrezkoa da hainbat ekintzatarako, hala nola berrikuntzak gehitzeko, prestakuntza-jarduerak produkzio-jardueren premien arabera bideratzeko, lanbide-birziklatzerako edo hezkuntza-ingurunean sortutako enpresak ezartzeko lokalak eta espazioak bilatzeko. Dinamizazio-agentzietatik enpresek kudeaketa-ahalmenean, trebakuntza teknikoan eta ezagutza teknologikoetan inbertitzeko ahaleginak sortu eta berma litezke.

Enpresentzat duten garrantziagatik, agentziak enpresa-lehiakortasunerako gero eta garrantzitsuagoak diren zerbitzuak egin litzake: informazio eta aholkularitza juridikoa, merkatu-azterketak, enpresen datu-baseak, eskualdeko sektore nagusien lehia-ingurunea, esportazioa, etab. Hasiara batean dinamizazio-agentziak zerbitzu espezializatuen eskaria estimulatzen eginkizuna har dezake bere gain, aholkularitzako, ingeniariatzako, diseinuko enpresa berrien agerpena sustatzeko. Aiarako eskualde-egitura, espazio metropolitarraren osagaia den heinean, hirugarren sektoreko mota horretako enpresak ezartzeko aukera-eremu gisa konfiguratu da.

Agentziak katalizatzailearen eginkizuna bete dezakeen jarduera garrantzitsu bat enpresa-lankidetzara eta asoziazionismoa sustatzeko da, baita eskualde-egiturako enpresen posizio estrategikoa indartzera eta Bilbaoko eremu metropolitarratik zein Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europako beste leku batzuetatik datozen produkzio-inbertsioak aztertzerara, hartzerara eta erakartzera zuzendutako ekintzak abiaraztea sustatzeko ere.

Agentziak garrantzi berezia izan dezake eskualde-egiturako landa-eremuetan dauden garapen-aukerak bultzatzeko, espazio horiek garatzeko estrategia konfiguratuak duten jardunak sustatzeko eta koordinatzeko eginkizuna bere gain hartuz:

- Industria-artistautzaren berreskurapena sustatzea.
- Landa-turismorako ekipamendua hobetzea: ostatua, ibilbideak, ondare historiko-artistikoa.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapena arrazionalizatzeko ekintza.
- Nekazaritza-produkzio sistema berritzaileak: nekazaritza biologikoa, produktu naturalak, jatorrizko deitura duten produktuak...

- Besteak beste, nekazaritzako, artisautzako, teknikako, turismoko eta enpresa-kudeaketako trebakuntza-ikastaroak eskaintzea.
- Lanerako prestakuntza-ikastaroak lantegi-eskoletan.
- Hiriguneak birgaitzea eta ondare artistikoa berreskuratzea.
- Sare Berdeko eta atseden-eremuetako ibilbideak kudeatzea eta garatzea.
- Emakida-sistemak, zerbitzuen ordainketa, errentamenduak, diru-laguntzak eta natura edo ingurumen intereseko espazioak finantzatzeko beste zenbait prozedura kudeatzea.

Azken buruan, agentziaren esku utzitako oinarrizko funtzioa Lurraldearen Zatik Planak proposatutako lurralde-aldaketako prozesua kudeatzea, potentzial endogenoaren balioa handitzea, bertako baliabideen dinamismoa eta gogo bizia areagotzea eta eskualde-egituraren garapen ekonomikorako aukerak aprobeztatzeko ahalmena areagotzea da.